# ttipi ttapa

423



## Xaretik: teknologia adituak mendialdean 03

Internet sarean eta urruneko lanean oinarrituz, Xaretik ekimenean komunikazioan eta teknologia berrietan adituak diren profesionalak sartu dira.



## Errekako binakako txapelketen finalak 32

Erreka elkarteak antolatutako eskuz binakako laugarren pilota txapelketako finalak jokatu ziren hilaren 13an. Elite mailan, Belloso eta Oteiza txapeldun izan ziren.

2006ko ekainaren 1a • XXVI. urtea



04

BIDASOAKO TRENBIDEA

# Natur Bide izateko bidean

# BigMat

## MENDITXURI

DONEZTEBE • Leitzako errep. • 948 450 305



ERAKUSKETA BERRIA



## DATUAK...

- Jabier Iriarte Sansiñena Etxalarko Kultur Etxeko eta Telezentroko teknikaria da.

- Xaretik ekimenean, komunikazioan eta teknologia berrietan adituak diren Nafarroako mendialdeko hainbat herrietako 9 profesional edo enpresa ttiki sartu dira, Internet sarean eta urruneko lanean oinarrituz. Komunikazio arloan zerbitzu hobea eskaintzeko 2002. urtean Cederna-Garalur, Pablo Mandazen Fundazioa eta Etxalarko Telezentroak bultzaturik elkartu ziren.




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Jabier IRIARTE** *Xaretik egitasmoa*

# «Elkarlanaren bidez negozio-aukera berriak eskaintzen ditu Xaretik-ek»

Xan HARRIAGUE

**Zer da eta zeinek osatzen duzue Xaretik egitasmoa?**

Xaretik Nafarroako mendialdeko enpresa eta langile autonomoen komunitate bat da. Komunitate honetan ibiltzen gara, batez ere, teknologia berriak eta komunikazioko lanetan, hori da gure eginkizuna. Talde horretan gaude, alde batetik, Etxalarko Telezentroa, Arbizuko Cederna-Garaluren Telezentroa, Garraldako Esteka Digital enpresa, Iruñean ere zentro bat duena, eta Garraldako Atxatxuri Digital enpresa. Sare-lanak eta lankidetza-estrategia zorrotzak, enpresei eta partikularrei «giltza eskura» zerbitzua eta soluzio globalak eskaintzeko aukera ematen digu. Telelanaren bidez, bertze kolaboratzaileak ere baditugu, batez ere Espainia eta Europako landa eremuetan.

**Zergatik sortu zenuten Xaretik?**

Lan sektore batzuk, teknologi berriak adibidez, herrietan garatzea nahiko zaila delako, kanpora jo behar duzu edozein lan egiteko. Enpresek ere, zebitzu bila hirietara jotzen dute, zonaldean aurkitzen ez dutelako. Horregatik komunitate bat sortzea pentsatu genuen, batak bertzeari laguntzeko lan talde konpetitiboa eginez eta zerbitzua inguruko enpresetara gerturatuz. Azken finean, Xaretik egitasmoak ederki erakusten du telelanak eta elkarlanean oinarritutako «win win» filosofiak balio erantsia eta etorkizuna duten negozio-aukerak ematen ahal dizkiela enpresei eta profesionalei, konfidantza, arrisku konpartitua eta malgutasuna eskatzen duten inguruetan lan egiteko prest daudenean.

> **«Xaretik komunitatean informatika, teknologia berriak eta komunikazioko lanetan ibiltzen gara, hori da gure eginkizuna»**

**Zer da zehazki, Xaretik egitasmo honetatik jende arruntarentzat eskaintzen duzuen zerbitzua?**

Alde batetik informatika aplikazioak garatzen ditugu, teknologia berrietan formakuntza ere ematen dugu, bai alfabetizazioa eta bai enpresentzat neurrira egindako formakuntza, web edo multimedia gaietan ere lan egiten dugu, komunikazio eta teknologia berrien inguruko kontsultoria zerbitzua eskaintzen dugu...

**Momentuz nortzuk dira zuen bezeroak?**

Dagoeneko 120 proiektu edo lan egin ditugu eta horiei buruzko informazioa www.xaretik.com helbidean aurki daiteke. Gehien bat Nafarroakoak izan dira, baina Euskadi Autonomia Erkidegoan, Madrilen edo Murtzian ere baditugu bezeroak, gehien bat erakundeak, administrazioak eta enpresak.

**Lehenbiziko urratsak egin zenituztela lau urte pasatu dira... Zergatik aukeratu zenuten mendialdea proiektua gauzatzeko?**

Nafarroako mendialdea ez da aukera bat izan. Komunitateko kide guztiak Nafarroako Mendialdekoak gara, bertan bizi eta lan egiten dugu. Hasieran bertako enpresekin eta erakundeekin lan egin genuen, baina denborarekin, inguruko enpresa eta erakundeetaz gain, estatuko eta bertze herrialdetako bezeroak lortu ditugu. 2002an hasi ginen elkarlanean, baina uste dugu hau dela Xaretik ezagutarazteko garaia.



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Onbordi eta Telleriko tunelak egokitu zituen iaz Lesakako Udalak.

**Garai bateko Bidasoako trenbidea Natur Bide bihurtzeko asmoa errealitate izanen da laister. Hamarkada bat baino gehiago darama Bertizko Partzuergo Turistikoa egitasmoa bultzatzen eta kudeatzen, eskualdeko turismo eskaintzaren bizkarrezurra izaten ahal delako: «Baztan, Bertizarana, Malerreka, Sunbilla eta Bortziriak lotzen dituen proiektu bakarra da, gure egitasmo nagusia» diote Bertizetik. Joan den apirilaren 17an, Espainiako Sustapen Ministerioko, Nafarroako Gobernuko Turismo Zuzendaritzako eta Partzuergoko ordezkariak bildu ziren Madrilen eta badirudi Ministerioa proiektua bere osotasunean ordaintzeko prest dagoela. Hasieran, Elizondo eta Endarlatsa arteko 43 kilometroak eginen lirateke, baina etorkizunean Irun bitarteko ibilbide osoa berreskuratuko da seguruenik.**

SUSTAPEN MINISTERIOAK OSORIK ORDAINDUKO LUKE

# Bidasoako trenbidean Natur Bidea egiteko proiektua bidean da

**Aitor AROTZENA**

Bidasoako trenbidean Natur Bidea egiteko proiektuaren berri eman zuten prentsaurrean maiatzaren 16an Andres Etxenike Bertiz Partzuergoko presidente eta Bertizaranako alkateak, Vicente Arotzena Partzuergoko presidente orde eta Arantzako alkateak eta Belen Mutuberria Partzuergoko gerenteak. Hauekin eta Cederna-Garalur eta aurreproiektua idatzi duen Pentia enpresako ordezkariekin batera, Carlos Erce Turismo zuzendaria izan zen Madrilgo bileran eta gustora ageri ziren izan zuten harrerarekin eta Sustapen Ministerioak proiektuaren %100a ordaintzeko aukerarekin. Andres Etxenikek aipatu zuenez, *«partzuergoaren proiektu nagusia izan da betidanik, bertzeak bertze, Bidasoa erreka bezala, eskualdeko bizkarrezurra delako. Gure eskaintza turistiko osoa egituratu eta bateratzen ahal dugu trenbidearen inguruan eta badirudi azkenean aitzinera egiteko modua izanen dugula»*.

Vicente Arotzenarentzat ere, Madrilgo bilera *«hagitz positiboa»* izan da. *«Sentsazio onak ekarri ditugu. Aurreproiektua hobetu behar dugu, batez ere erabiltzaileen segurtasuna zaintzen inbertitzeko eskatu digute, baina lanak osorik ordaintzeko ministerioaren konpromisoa daukagu: bidea egokitzea, hesiak jartzea, seinalizazioa…»*.

### ELIZONDOTIK ENDARLATSARA LEHENIK, IRUNERAINO GERO?

Bidasoako Trenbideak 1916 eta 1956 urteen artean lotu zituen Irun eta Elizondo. Lehen bidaia 1916ko maia-

tzaren 28an egin zuen, azkenekoa 1956ko abenduaren 31n. 51 kilometro terdiko ibilbidetik, lehendabiziko fasean 43 egokituko lirateke, Elizondo eta Endarlatsa artean. Dena den, Andres Etxenikeren ustez, *«etorkizunean oso-osorik Irun bitartean berreskuratzeko aukera dago, Gipuzkoako Diputazioak eta Irungo Udalak Endarlatsa eta Irun arteko tarteari bidegorri izendapena eman diotelako, beraz oinezko eta bizikletendako berreskuratu nahi dute».*

Trenbide zaharra natur bide bilakatzeko, motorra duten ibilgailuen zirkulazioa murriztu beharko litzateke eta Sustapen Ministerioak lur guziak publikoak izatea eskatu du. Bide ondoko baserrietako bizilagunek bakarrik izanen lukete bidetik zirkulatzeko aukera, bertze sarbiderik ez dutenean. Bertze aldetik, lurren erditsua partikularren esku dago eta horregatik, udal lurrekin permuta egin edo erabilera publikoa egiteko baimena eskuratu beharko litzateke. Baina baserritarrek nahiz udalek badakite, honek, eskualdeko ekonomiarako eragin ona izanen duela eta momentuz, jarrera ona topatu dute. Partzuergoak ibilbidearen mantenimendu lanak ere egin beharko lituzke. Vicente Arotzenak aipatu zuenez, *«lurrak lehenbailehen eskuratu nahi ditugu, proiektua berregin eta Madrilera bidaltzeko, baina ez dugu epe zehatzik jarri».*

Andres Etxenikeren ustez, *«garrantzitsuena proiektua berriz ere esku artean dugula da eta azkenean errealitatea izaten ahal dela».*

### ORDEZKO BIDEAK BAZTANGO ZENBAIT LEKUTAN

N-121-A errepidean eginen diren lanek bi tokitan ukituko dute trenbidea, baina lanak akaututakoan orain dagoen bezala utzi beharko dute. Baztanen, trenbide zati batzuk galdu egin dira eta gainean eraiki ere egin da, baina dagoeneko ordezko bideak bilatu dituzte. Bere garaian, Bertizko Partzuergoaren nahia Bide Berdea egitea zen, baina zenbait zatitan porlana edo galipota emana denez, hori ezinezkoa zen eta alde batera utzi zen proiektua. Joan den urtean, Lesakako Udalak Onbordi eta Telleriako tunelak garbitu eta argiak jarri zituen eta hortik aitzinera, etorkizunean trenbidea Natur Bidea izateko aukera aztertzen hasi ziren. Honetarako, zola motarekin ez litzateke arazorik izanen.

## EZAGUTZERA EMAN BEHARREKO PROIEKTUA



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

**Belen Mutuberria, Andres Etxenike eta Vicente Arotzena, Bertiz Partzuergo Turistikoko ordezkariak.**

Maiatzaren 20an ospatu zen Bide Berdeen Eguna eta Bidasoako egitasmoaren berri emateko aprobetxatu zuen Bertizko Partzuergoak. Alkaiaga, Lesaka eta Igantziko Benta arteko trenbidean ekitaldi batzuk egin zituzten: beheitiko argazkian ageri den tren txutxua, zaldiak, musika, txirrindulariak, oinezkoak festa giroan.

Baina bide berdeen egun hau ez dela ekitaldi bakana azpimarratu zuen Belen Mutuberriak, proiektu oso baten zatia baizik: *«Jakina da Partzuergoa duela urte batzuk hasi zela trenbidearen berreskuratze lanean eta iaz, 2005ean Lesakako udalak bere eremuko tunelei argia jarri zienean, trenbidearen proiektua berrindartu zen eta geroztik horretan ari gara lanean. 2005 urte bukaeran eta aurten Madrilgo Ingurumen Ministerioarekin eta Nafarroako Gobernuarekin harremanean izan gara, proiektu hau aurrera eramateko. Hortik gabiltza eta aldi berean, Bide Berdearen baliabide honi promozioa ematen saiatzen ari gara eta Bide Berdeen Eguna ekitaldi horietako bat izanen litzateke. Horrekin batera bertze batzuk ere egiten ari dira: bide berdeen web-gunean sartua dago Bidasoakoa, trenbideari eta eskualdeari buruzko informazio osoarekin. Bertze aldetik, baliabide honen irudia aukeratzeko lehiaketa ere eginen da».*

Bide Berdeen web-orrian izatearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen Andres Etxenike, Partzuergoko presidenteak: *«Madrilen izan ginenean, Bide Berdeen saileko Carmen Arcayarekin ere izan ginen eta web-orrian sartzeko aukera hori eman zigun. Joan den urtean 1.700.000 bisita izan zituen orri horrek eta aurten 2 milioitik pasatzea espero dute eta hori publizitate handia da».*



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Bide Berdeen Eguna ospatu zen maiatzaren 20an.**

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/70
TIRADA: 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arotzena. **Publizitatea:** Kulturkari, SLU. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea... **Imprimategia:** Gertu. **Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzinetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Haur Eskolak Iruñean eta Nafarroan

Etengabe ikusten ari gara nola Iruñeko eta Nafarroa osoko eskuin ozpindu eta garratzak kudeatzen dituen ondasun publikoak interes pribatuen alde, eta haur hezkuntzaren alorrean, jakina, Nafarroako UPNk eta CDNk ez dute salbuespenik egiten, behin eta berriz ari dira jokatzen heziketa pribatuaren alde eta publikoaren aurka; batez ere, euskal kulturaren kontra egitez gozatzen dira modu setatian. Hori guztia argi eta garbi ikusteko adibide batzuk jarriko ditut.

Esate baterako, aurten bertan Iruñean gurasoek egin dituzten 1.575 eskaeretatik, bakarrik 603 plaza eskaini dira eskola guztietan, hau da, publiko eta pribatuetan. Beraz, 972 familia gelditu dira posturik gabe; ia-ia 1.000 haur. Hortaz, Iruñeko haur eskolek soil-soilik, eskaeraren %38 asetzen dute, prentsan irakurri ahal izan dugun arabera. Eta honen aurrean, ikusten dugu Iruñeko Udaleko Gobernu Taldea ez dela gauza izan 2005eko kredituko diru guztia erabiltzeko. Gainera, iazko zenbakiak oraindik txarragoak izan ziren. Bitartean, maiatzaren 4an UPNk eta CDNk Iruñeko udalean aurkeztu zuten mozio bat, diru-laguntzak emateko haur eskola pribatuei, eta baita onartu ere.

Azken urte hauetan, UPNk eta CDNk era tematian sortu dute "Hello Rochapea", (eta orain gauza bera egiten ari dira Azpilagañan), ingelesa, bertako hizkuntza ofiziala ez dena bultzatzeko, eta bitartean, bertako hizkuntza ofizialak direnak, euskara eta gaztelaniaren eskaerak, ase gabe uzteko. Hau guztia gertatu da Udaleko Soziologia Unitateko ikerlan eta aurre-ikuspenei batere jaramonik egin gabe, eta batez ere, beharrezko neurriak inola ere hartu gabe. Pribatu bihurtze horrek, bestalde, kalteak ekartzen dizkie langileei ekonomikoki eta haurrei heziketa kalitatean dagokionez.

Iruñean une hauetan gutxienez 10 haur eskola berri gehiago beharko lirateke, eta bitartean, UPN / CDNko Udal Gobernu Talde egoskorrak jarraitzen du gutxiegi inbertitzen afera honetan. Modu honetan, haur eskola, gizarte eskubidea dena, UPN eta CDNkoak bihurtzen ari dira pribilegio. Gainera, Gazteluko plazako aparkalekuan egin duten diru galerarekin, ase ahalko zen haur eskolen ia-ia eskaera guztia.

Beste alde batetik, gaztelera / ingelesa asmatu duten hizkuntza eredu berri hori, zehatz-mehatz egina da euskara oztopatzeko, balaztatzeko, atzeratzeko eta desagerrarazteko. Aralarrek ez du deus ere ingelesaren aurka, baina, jakina, lehendabizi bertako bi hizkuntza ofizialen eskaera publikoa ase behar dute Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak, horregatik, hain zuzen ere, erakunde publikoak direlako.

Hau guztia Iruñean, baina Nafarroa osoan berdin-berdin jokatzen ari da erkidego honetako eskuin tenkor, burugogor eta atzerakoia, hots, UPN eta CDN.

**Xanti Begiristain Madotz.**
**Iruñeko Udaleko Aralarreko zinegotzia**

## Goizutako Txino auzoko festak

Maiatzaren 6an izandu zen Goizutako Txino auzoko festa. Bertan, denetik; ume, gazte, heldu eta adinduentzat pentsatutako egitarau zabala. Bezperatik hasita (mus txapelketa) eta larunbatean, goizetik hurrengo goizaldera arte, inguratzen zen guziarentzat ikusteko, aditzeko, parte hartzeko eta gozatzeko aukera bazen: umeentzako jokuak, herri-kirol desafioa, harri-jasotze erakusketa, herri-bazkaria, bertso-poteoa eta nonahi dantza egiteko aukera ("orapen", musika-taldekin; "plazan", Iparraldeko dantzariekin; eta "bajeran", DJarekin).

Idatzi honen bidez, hori dena hain ongi ateratzea posible egin zuten langilek eskertu nahi ditut. Ni herritar xume bat naiz, bino festara inguratu ziren guzien (herritar nahiz kanpotar!) pentsamendua adierazten dudala uste dut, denak oso gustora baiginan. Goizaldea ailegatu, eta ezin etxera erretira! Festan parte hartu zuteneí eta eguraldi txarragatik izutu ez zirenei ere eskerrak, beraz! Hango giroa denen kulpa baitzen!

Eta urtero ezustekoren bat ematen digun eguraldiari? Heldu den urtean ona izateagatik harrituko gaituen esperantzan.

**Herritar bat**

## Txino auzoko jaien eskertza

Aurten ere, 3. aldiz, goizuetar askok eta beste hainbat jendek ere Goizuetako Txino Auzoko jaiez gozatzeko aukera izan dute eta aurtengoan ere argi eta garbi ikusteko parada izan dugu gazteok gure kabuz antolatu eta hainbat ekintza aurrera eramateko gai garela, beti ere, ondorengo talde, elkarte edota erakunderi eskerrak emanez.

Alde batetik diru laguntza eman diguten: Udala, Umore Ona Elkartea eta Gordea eta Zubi Ondo tabernak.

Bestetik, antolakuntza lanetan lagundu diguten Gestora eta Segi gazte erakundea. Baita momentu guztietan laguntzeko prest egon diren Gordea eta Zubi Ondo tabernetako kideak ere.

Eta azkenik, baita festa hauetan parte hartu duen gazte nahiz ez hain gazte guztiei ere, azken finean zuek gabe ez baitago jaia aurrera eramaterik.

Besterik gabe, eskerrak eman denei eta datorren urtean ere elkarlanean jarraituko dugulakoan gaude.

Eskerrik asko!!!

**Goizuetako Gazte Asanblada**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA 2006-05-18

*«Hartza izan daiteke aurrera egiteko modu bat Pirinioetako artzainentzat. (...) Hartza galtzeak ez du hondamendi ekologikoa eraginen, baina artzainak desagertzen badira, eragina oso handia litzateke, ekologian eta kulturan. Garrantzi handia du, eta ideia hori saldu behar dute artzainek».*

**Migel Mari ELOSEGI**
Leitzako biologoa
Berria 2006-05-18

*«Gure historia, gure kultura harriaren bitartez kontatzea da nire ideia. Gizakia, hasieratik lezeetan babestu da, harriak jaurti ditu, harri azpian lurperatu dute, trikuharriekin lurraldea mugatu du, baserriak harriz egin ditu, harriarekin lotutako hitzak hartu ditu hizkuntzan. Hori azpimarratu nahi dut».*

**Iñaki PERURENA**
Leitzako harrijasotzailea
D.Navarra 2006-05-24

## • 11 GALDERA LABUR •

**Lesakan bizi den oiartzuarra edo Oiartzunen jaiotako lesakarra?**
Lesakan bizi den oiartzuarra.

**Sagardo egile edo sagardozale?**
Biak, sagardo egile eta zale.

**Bertsolari edo bertsozale?**
Hor ere biak esango nuke, baina bertsolari gehiago.

**Sagardoa errazago sartzen da bertsoekin?**
Bai, nik uste baietz.

**Eta bertsoa errazago ateratzen da sagardoarekin?**
Bai, baina neurrian edanda, bestela akabo memoria!

**Sagardoa dastatzeko, txotxetik edo botilatik?**
Sagardo hobea botilatik, baina sagardotegiko giroa txotxetikan.

**Txuleta punttuan egiteko sekreturik?**
Lehendabizi genero ona eta gero gehiegi egin gabea, erdian epela baina gorria.

**Nafarroako sagardotegi giroa konparatzen ahal da Gipuzkoakoarekin?**
Orain dela laubost urte igual ez, baina orain gero eta ohitura gehiago da Nafarroan, parekatuagoa dago.

**Eta Nafarroako bertsolariak Gipuzkoakoekin?**
Eliteko sei-zazpi kenduz gero, gainontzean edozein plazara elkarrekin joateko moduan gara.

**Etxean dituzun astoek ez al dituzte sagarrondo muskilak jaten?**
Ez, sagarrak dauden tokian ez da astorik eta astoan dauden tokian ez da sagarrik.

**Lau hankako edo bi hankako astoak nahiago dituzu?**
Lau hankakoak nahiago.



**Juan Mari LOPEZ**
*Lesakako bertsolari eta sagardo egilea*















GIZARTEA

# Seme-alabak dituzten ama langileentzat laguntzak izanen dira

## Eskariak aurkezteko epea ekainaren 30ean akautuko da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteriaren Departamentuaren bitartez, hiru urte baino guttiagoko seme-alabak dituzten emakume langileentzako diru laguntza deialdia zabaldu du. Jose Ignacio Palacios kontseilariak sinatutako Foru Agindua, martxoaren 10eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Laguntza hori eskuratzeko ezaugarri batzuk bete beharko dira. Izan bere kontura edo bertze norbaitentzat, emakumeak 2005garren urtean, guttienez hilabeteko 5 egun osoz lanean aritu dela frogatu beharko du. Bidenabar, epe horretan hiru urte baino gazteagoko seme alaba bat bere kargu zuela, izan sortzez, harrera iraunkorrekoz edo adopzioz. Eskatzailea Nafarroan erroldatua izan beharko du, eta iazko errenta deklarazioa Nafarroan egina.



Arrixaberri

**Hiru urte arteko seme-alabak dituzten emakume langileek dirulaguntza eskatzeko eskubidea izanen dute.**

**ERRENTAREN ARABERAKO DIRULAGUNTZAK**

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga oinarria ere kontutan hartuko da. Aipatutako ezaugarriak betetzen dutenek eta familia osatzen dutenen zerga oinarria 26.000 euroko baino guttiagokoa bada, urtean 1.800 euro izaten ahalko dituzte, 150 hilabete bakoitzeko. 26.000 eta 35.000 euro arteko zerga oinarria duten familiek berriz, 1.200 euro eskuratzen ahalko dituzte, 100 euro hilabete bakoitzeko.

Laguntza horien banatzeko, milioi bat euro aurre ikusi da, baina behar izanez gero, diru kopurua handitzen ahalko litzateke. Eskaerak, Familiaren Zuzendaritza Orokorrera zuzendu behar dira eta deialdia ekainaren 30ean bukatuko da.

OSASUNA

# Osasun zentroentzat dirulaguntzak emanen dira

ttipi-ttapa

2006garren urterako, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak, 12 osasun kontsultategi eraikitzeko eta bertze 11 moldatzeko 757.000 euro zuzendu ditu. Profesionalei dagokionez, herrialde osoan, medikuntza orokorreko 11 mediku, 5 pediatra, 7 erizain eta 11 administratzaile berri kontratatuko dira. Gure eskualdean, inbertsioak, azpiegituretan baizik ez dira izan. **Arizkun**go kontsultategiak 6.000 euro eskuratuko ditu, teilatua eta leihoak berritzeko. **Erratzu**n, 21.000 euro izanen dituzte, kontsultategi berriaren obren lehen faserako. **Urroz**ko kontsultategiko berogailuak ordezkatzeko, 3.500 euro zuzenduko dituzte. Azkenik, **Arantza**n, kontsultategian moldaketak egiteko, 2.000 euroko diru laguntza izanen dute.

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEAK
ESTALDURA OROKORRAK
Bera · Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak
Bera Goya

MERTZERIA Deñe LENTZERIA
LESAKA

ERROTAZAR
haragetia
Bertako produktuak
Eztegara, 3 · BERA
Tel/Faxa: 948 630 088

borizIRUDI

BERA
GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak
Tel. 948 625 597 • Zalain, 42 A • BERA

BERA

# Ekainaren 10ean eginen da Berako Bigarren Kirol Eguna

## Altzateko bestak ekainaren 8tik 10era ospatuko dira

Amaia eta Ainhoa

Ekainaren 10ean Beran II. Kirolaren Eguna ospatuko da eta hainbat ekitaldi antolatu da. Goizeko 10:00etatik hasita egun osoan jarduera ezberdinak egiteko aukera izanen da. Goizez kirol erakustaldiak eginen dira eta parte hartzeko aukera ere izanen da: herri kirolak, saskibaloia, aerobica, ciclo indoor, orientazioa, futbola, ur-jarduerak... Eguerdian bazkaria izanen da eta ondotik, haur, gazte eta helduek herri krosean parte hartzeko aukera izanen dute. Argibide gehiagorako Toki Ona kiroldegiko bulegora joan beharko da edo bertara deitu, 948630215ra. Hortaz gain, Gure Txokoaren 75 urteurrena izanik eta Kirol Eguna probextu nahian, Gure Txokoa eta Beti Gazteko jokalari ohien arteko futbol partidu bat antolatu da. Parte hartu nahi duten Gure Txokoko jokalari ohiek batzordeko norbaitekin harremanetan jarri beharko dute edo 948 630014ra deitu maiatzaren 31n, 19:30etatik 20:30era bitartean. Bertzalde, Gure Txokoako batzordeak, hurrengo egunetan 2006ko bazkide kuota kobratuko dutela gogoratu du.




ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

***Ibai Perezek egin du Larun Haitzpe elkartearen logotipoa***

**Larun-Haitzpe Merkataritza Elkarteak duela hilabete batzuk elkartearen irudi korporatiboa izanen zen logotipoa diseinatzeko lehiaketa antolatu zuen. Epaimahaiak, aurkeztutako lan guztiak aztertu ondoren, Ibai Perezena saritzea erabaki du. Beraz, hemendik aintzinera berak egindako logotipoa elkartearen zigilua izanen da. Argazkian, Ibai 300 euroko saria jasotzen.**

### *Altzateko bestak*

Ekainaren 8tik 10era ospatuko dira Altzateko bestak. Ortziralean, 18:00etan Altzate eta Agerra auzokoen arteko futbol partidua jokatuko da Agerran eta 20:00etan altxaferoa botako da Kataku ostatuko terrazan. Kankailu eta buruhandiak atera eta goxokiak eta txanpaina ere banatuko dira. Auzoko ostatuetan pintxo bereziak, ardoa eta garagardo bereziak eskainiko dira. 23:30etik aitzinera Kataku ostatuko terrazan Berako musikariek bertsioekin kontzertua eskainiko dute. Larunbatean izanen da Altzateko Eguna. 12:00etan Kalejira izanen da. 14:00etan auzo-bazkaria izanen da eta ondoren, 16:30ean, Gure Txokoa txirrindularitza eskolak antolatutako Altzateko V. Kriteriuma. Berendua eta japoniar bonbak 18:30ean izanen dira. Gure Txokoako dantzariek 20:00etan eskainiko dute ikuskizuna Altzateko Plazan eta gauez Irats taldea arituko da. Zezen-suzkoa 23:30etik aintzinera ibiliko da. Besten azken eguna, igandea, haurrena izanen da. Arrantza lehiaketa 10:00etatik 12:00etara izanen da. 13:00etan, txistulariekin kalejira. Zinemak ere tokia hartuko du bestatan "Los increíbles" filmarekin. 18:30ean Altzateko balkoirik politenari saria emanen zaio. 19:30etik aitzinera, txistu poteoa izanen da ostatuz ostatu eta bestei akabera emateko, 20:30ean afari goxoa dastatu ahal izanen da kataku ostatuko terrazan.

FLASH

### *Haurtzaindegiko kudeaketarako kontratazio prozesua*

Mukixu haurtzaindeko zerbitzua kudeatzeko kontratazio espedientea ideki du Udalak udalak. Lehiaketa bidez eginen da eta epeak eta baldintzak Nafarroako Aldizkari Ofizialean jakinaraziko dira.

### *Dantzari ohien bilkura*

Lehenagoko garaietan dantzari izandako lagun talde batek, dantzari ohi guztien arteko besta bat ospatzeko asmoa eta borondatea adierazi du. Proposamena, San Esteban egunean, hainbat makildantza dantzatzea da. Bestak baino lehen, eta azken entsaioarekin batera, bazkaria egiteko intentzioa dute eta horretara, dantzatu nahi dutenak edo, bertzerik gabe, bazkarian parte hartu nahi duten dantzari ohiak joaten ahal dira. Totono, Ttarratto, Josu Goia, Mikel Iturria eta Fran Agara ari dira zerrenda osatzen.







## LESAKA



UTZITAKO ARGAZKIA

**_Beti Gazteko neskak Gipuzkoako Kopako txapeldun_**

**Beti Gazteko neskek beraien lehenbiziko titulua eskuratu zuten maiatzaren 20an, Gipuzkoako Kopako finala irabazi zutenean. Donostiako Herrera zelaian jokatu zuten finala Lasarteko Ostadar taldearen kontra. Arauzko denbora binako berdinketarekin akautu ondotik, penaltietan 3-0 nagusitu ziren Koldo Erkiziak gidatzen dituen neskak. Goretti Etxegarai kapitainak, Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentearen eskutik jaso zuen txapeldunaren kopa. Gero, herrian ongietorria eskaini zitzaien eta txarangaren laguntzaz karrikaz karrika ibili ziren kamioi gainean. Biharamonean, jubenilen partidoa hasi baino lehen ohorezko pasilloa egin zieten bi taldeek eta ohorezko sakea ere egin zuten. Zorionak!**

# Nafarroako Sagardoaren Eguna herrian eginen da ekainaren 10ean

«Sagarraren mundua» erakusketa ekainaren 5ean irekiko da

**Aitor AROTZENA**

Nafarroako sagardotegi denboraldia herriko Linddurrenborda sagardotegian ireki zen urtarrilean eta orain, ekainaren 10ean, Nafarroako Sagardoaren Eguna ere herrian ospatuko da. Egun osoko besta egitarau zabala prestatu dute Nafarroako sagardogileek.

Goizeko 9:30etan diana eginen da Lesakako txistulariekin eta Baztango gaiteroekin. 10:00etan azoka agroalimentarioa eta artisauak izanen dira Plaza Zaharrean. Eguerdian, sagar dantza, sagar jotzea eta estutzea eta Kirikoketa jotzea, hau da, sagardoa egiteko modu tradizionalaren erakustaldia eginen du Jo ala Jo kultur taldeak. Ondotik, bertsolariak eta trikitilariak arituko dira.

Arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara ekitaldi nagusia eginen da Plaza Zaharrean. Sagardogile ezberdinen sagardoa dastatzeko aukera eta ogitartekoak ere izanen dira. Bitartean, Tantirumairu dantza taldearen eskutik dantza saioa izanen da eta trikitilariak ere arituko dira. 20:00etatik aitzinera, dantzaldia izanen da Tapia eta Leturiarekin.

**Erakusketa**

Egun honekin lotuta, ekainaren 5etik 10era «Sagarraren mundua» izeneko erakusketa zabalik izanen da udaletxeko pleno aretoan, 18:00etatik 21:00etara. Ekainaren 8an, berriz, 19:30etan «Sagardoa eta sagar mota desberdinak» izeneko solasaldia eskainiko dute pleno-aretoan Jesus Sangel Garcia Nafarroako sagardogileen presidenteak eta Juan Mari Lopez Lesakako Linddurrenborda sagardotegiko nagusiak.

## FLASH

### *400 musika partitura bildu dira*

Udalak eta Eusko Ikaskuntzaren arteko lankidetza hitzarmenaren baitan, beka deialdia egin zuten Lesakako musika bilketa egiteko eta Javier Etxebarria musikologoa izan da bilketa lan garrantzitsu hau egin duena. 400 partitura baino gehiago bildu ditu eta hauen artan badaude ezagutzen ez zirenak ere. Lesakako musika ondarearen zati handi bat berreskuratu da eta orain bildutakoa ezagutzera eman nahi da. Adibide gisa, Candido Albisturrek konposatutako «Christus» obra aipatzen ahal da, azken 100 urte hauetan jo ez den pieza bat, hain zuzen ere. Maiatzaren 23ko aurkezpenean, Laura Iantzi alkateordea, Eusko Ikaskuntzako Eresbil musika artxiboko Jon Bagues eta Javier Etxebarria lanaren egilea izan ziren.

### *Jubilatuen Eguna ekainaren 9an*

Urrezko eta Diamantezko Eztaiak ospatzen dituzten bikoteek omenaldia jasoko dute ekainaren 9an. Urrezko Eztaiak Genaro Pikabea eta Teresa Larralde, Adolfo Campo eta Juliana Rey, Jose Garcia eta Josefa Santos eta Lucio Garcia eta Paula Maria Garcia senar-emazteek egiten dituzte. Diamantezko Eztaiak Benito Tainta eta Ignacia Pikabeak.









BORTZIRIAK

# Igerileku-bono amankomunak izanen dituzte haur eta gazteek

## Ikastetxea edo besta girotik aparte, harremanak mantentzeko bertze aukera bat izanen dute udan

**ttipi-ttapa**

Joan den otsailean, Bortzirietako Institutuko eta eskoletako Guraso Elkarteek igerileku publikoa daukaten Udalei (Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka) eskaera berezia egin zieten, 18 urtetik beheitikoek udarako egiten dituzten beren herrietako igerilekurako bonoak berdin erabili ahal izateko Bortzirietako edozein igerilekuetara sartzeko.

Udal guztien erantzuna baiezkoa izan da (Lesakakoarena aparte, hemengo igerilekua udan itxita egonen baita obretan delako) eta, beraz, uda honetan 18 urtetik beheitikoek Bortzirietako edozein igerilekutara sartzen ahal izanen dira bakoitzaren herriko bonoa erakutsiz.

Eskaera honen helburua herri ezberdinetako haur eta gazteek udan ere harremanak mantentzeko toki bat izatea zen, ohikoak diren ikastetxea edo besta girotik aparte, kontutan hartuz gainera sasoi honetan igerilekua horretarako leku aproposa dela.

Ekimen hau martxan jartzeak bertze helburu bat ere bazeukan: gizarteari nolabait "barneratzea" haur eta gazteen heziketa heldu guztien lana eta ardura dela. Ideia hau honelako esaldi honetan laburbildu daiteke: *«haurra hezitzeko herri guztia behar da»*, eta konkretuki Bortzirietako Heziketa Proiektu bat sortuz egin zitekeena, non parte hartuko zuten Kultur elkarteek, Kirol taldeek, Ongi izate mankomunitateak, Udalek, Osasun etxeek, Aisialdi taldeek...



ARTXIBOKOA

**Uda sasoian harremanak lantzeko leku aproposak dira igerilekuak. 18 urtetik beheitiko neskamutikoek Bortzirietako edozein erabil dezakete.**

Igerilekuekin hasiz, Guraso Elkarteek espero dute *«hezkuntza, guztion ardura»* ideia hau interesgarria eta beharrezkoa ikusiko dela gizartean, eta luze gabe modu planifikatu batean martxan jartzeko aukera izanen dela.



## ETXALAR

# Igande honetan, ekainaren 4an eginen da XIV. Gasna eta Artisau Feria Eguna

### Martxan dago dagoeneko Usoa kooperatibako gasolio saltokia

**Joseba eta Nerea**

Urtero bezala, egun handia antolatu du Altxata Kultur Elkarteak ekainaren 4rako. Gasna eta Artisau Feria eginen da 14. aldiz, eta nobedade batzuk ekarriko dizkigu aurtengo egitarauak.



ARGAZKIA: NEREA

**Duela bi aste ireki zen Usoa Kooperatibako gasolio saltokia. Nahi duten guztiek B eta A motatako gasolioa hartu dezakete, kalefazioarentzako eta traktoreentzatko, eta kotxearentzako. Horretarako txartel bat bete beharko da kooperatiban bertan. Sozioek debalde, eta sozio ez direnek 10 euro ordainduta. Autoen gasolia hartzeko edozein ordutan egiten ahalko dute txartela dutenek, eta kooperatiba irekia dagoen ordutan bakarrik txartelik ez dutenek.**

#### HAURRENDAKO SORMEN TAILERRAK

Beti bezala, protagonista nagusia gasna izanen da. Goizean goizetik mahai bat egonen da frontoian, aurtengo gasna lehiaketan parte hartu nahi duten guztiek beren gasna hara aurkeztu dezaten. Inguruan berriz, frontoi osoan barna banatuta, dozena bat artisautik goiti ikusi ahal izanen dira. Egurra, burnia, arropa, eztia... gisa guztietako produktuak lantzen dituzten eskulangileak egonen dira postuetan. Horien artean, nola ez, gasna saltzaileak ere bai, eskualde osotik etorritakoak.

Aurtengo nobedadea plazan paratuko dituzten haurrentzako sormen tailerrak dira. Buztinarekin hainbat eskulan egiten ahalko dituzte bertara hurbiltzen direnek, artelana eta josteta modu dibertigarrian uztartuz.

#### TRIKITILARIAK, HERRI BAZKARIA ETA DANTZAK

Azkeneko urteetan ohitura bihurtu da herriko trikitilariek eguerdi partean trikitixa-saioa eskaintzea. Aurten ere hor egonen dira, 12:30ean, ikuskizun polit bat eskaintzeko prest. Nagore Ansalas irakasleak erran digunez *«kantu ezagunak, fandango eta arin-arinak, txapelketetako abestiak... denetik joko dugu eta saio gehiena perkusio tresna biziekin lagunduta»*.

Eguerdiko 13:30ean gasna lehiaketa irabazi dutenen izenak emanen dira. Frontoian bertan eginen da sari-banaketa eta irabazleei trofeoak banatuko zaizkie bazkaldu aitzinetik. Eguerdiko 14etan, bazkaria izanen da frontoian. Eguna akabatzeko, arratsaldeko 6etan herriko dantzariek saioa eskainiko dute plazan.

Egun osoan herriko emakumeen eskulan erakusketa egonen da ikusgai Andre Mari Elkartean. Urte honetan Mari Pui Urtasun irakaslearekin eskulan ikastaroan egindako lanak herri osoaren aitzinean paratuko dituzte ikusgai.

### *Bi haurrek lehenbiziko komunioa*

Joan den igandean, maiatzak 28, izan ziren aurtengo komunioak. Bi haurrek egin zuten: Bazterretxeako Joseba Irazokik eta Zubiondoko Nerea Iparragirrek.











ARANTZA

# Laurehundik gora lagunek egin dute Mendi Itzulia

## Asier Apezetxea gaztea mendi bizikletan Euskal Herri mailako bi txapelketetan goi-goian dabil

Nerea ALTZURI

Pasatu da aurtengoa ere. Joan den maiatzaren 21ean laurehun eta hogei lagunek Arantzako mendi itzulia egin zuten. Aitzineko bi edizioetan ez bezala, hirugarren honetan inguru eta paisaia ederrak ikusi dituzte mendizaleek eguraldia lagun. Gainetatik edo tontorretatik, herri kaxkoa begibistan, zinez gozatu dute aurtengo ibilaldia.

Herriko, eskualdeko eta inguruko herrialdeetako jendea etorri da aurtengora. Batzuek aitzineko urteetako esperientzia magalean, eta bertze batzuek, ordea, lehen aldiz egin dute herriko mendi ibilaldia. Mendiaz gozatzeko modu aunitz daude. Hiru ordu baino guttiagoz eta laisterka egin duenik izan da aurtengoan... Bortz ordu eta bortz ordu eta erdi iraun du batzuen ibilaldiak.... lasaiagoa izan da bertze batzuentzat. Nolanahi ere, sei ordu eta erdi pasatzea banazbertzekotzat jo zuten antolatzaileek. Gainaz-gaina ibili ondotik haize ufada indartsuei aurre eginez, herriko plazan oroigarri nahiz hamaiketakoa prest zituzten mendigoizaleek.

Antolatzaileek hagitz balorazio positiboa egin dute edizioari buruz. Kontent gelditu dira, hurrengoa prestatzeko ilusioz. Bidenabar, lerro hauen bitartez egun hori aitzinera eramateko lagundu duten guziei eskerrak eman nahi dizkiete Ekaitza elkarteak eta Gazte Asanbladak.

### *Asier Apezetxea goian*

Mendi bizikletaren mundua ongi baino hobekiago ezagutzen du Asier Apezetxeak. Ezaguna da Asier kirol modalitate horretan eta bere kategorian lehen ere bere garaipenen berri eman dugu herriko kronikaren atal honetan. 26 urteko gaztea ez dabil makal. Euskadiko Opena eta "vasco-navarro" delako zirkuituan dabil joan den martxoaz geroztik. Lehenengo txapelketan sailkapen orokorrean bigarren postuan doa eta bigarren lehiaketan lidergoa berea da. Emaitza ezin hobeak dudari gabe!

Lantegiko lana eta mendi bizikletarako zaletasuna uztartuz, asteburuero hitzorduak ditu Asierrek. Bi txapelketa horietarako entrenamenduez gain, mediku batek ere zaintzen du. Gustora ari da Iruñeko taldearekin. Burubelarri lanean segitu beharko du, iraila bitarte irauten baitu Euskadiko Openak. Hala ere, abuztuan atseden hartzeko astia izanen duela dio berak. Joan den igandean Euskadiko Txapelketa korritu zuen, Openerako puntuagarria.





ARGAZKIAK: XAN HARRIAGUE

**Laurehun lagunek Arantzako III. Mendi Itzuliak eskaintzen zituen inguru eta bistetaz gozatu ahal izan zuten maiatzaren 21ean, eguraldi ederra lagun zutela. Ekaitza Elkarteak eta Gazte Asanbladak hagitz balorazio positiboa egin dute.**





IGANTZI

# Aurtengo igerileku denboraldia ez da ohikoa izanen

## Lesakan piszinak itxita egoteak jende gehiago erakarriko du



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**18 urtetik beheitikoek edozein herritako txartelarekin Bortzirietako piszina guzietan sartzen ahal izanen dira.**

**Oskar TXOPERENA**

Hamabortz egun bertzerik ez dira falta igerileku denboraldia hasteko. Maiatzaren erdialdera akautu zen ostatua eta aldagelak zaindu nahi zutenek eskaintzak egiteko epea. Aurkeztutako eskaintza bakarra Axun Iribarrenena izan zenez, lana berari ematea erabaki zuen Udalak. Ekainaren 15a izanen da denboraldiko lehen eguna eta ekainaren 5etik aitzinera ateratzen ahal izanen dira txartelak Herriko Etxean. Ez ditugu salneurri guziak aipatuko, baina hauek izanen dira gehien erabiltzen direnenak: denboraldi osorako helduak: bertakoak (36,57 €) eta helduak (62,26 €); eguneko sarrerak: 4,90 €. 18 eta 10 urtetik beherakoentzat salneurri bizkorki merkeagoak dira.

Gai honi lotuta, Bortzirietako Guraso Elkarteek sartutako eskaria eztabaidatu eta onartu zuen Udalak. Honela, txartela Bortzirietako edozein herritan ateratzeak igerileku guzietako ateak zabalduko dizkie 18 urtetik beheitiko bortziritarrei udan.

Bertzalde, Lesakako igerilekuak aurtengo udan itxita egonen direnez, bertako Udalak zenbait erabaki hartu ditu. Bertzeak bertze, autobusak paratu behar ditu lesakarrak Bera eta Igantziko igerilekuetara joateko. Horrek, ezbairik gabe, igerilekuan ibiliko den jende kopurua haunditzea ekarriko du. Ea pazientzia pixka batekin behar bezala moldatzen garen.

### *Mendi-bizikleta jaitsiera*

Iaz, egutegiak aginduta, urriaren 8an egin behar izan zuten Igantziko Mendi-bizikleta Jaitsiera. Aurten lehengo urteetako tenorera ekarri nahi izan du Biltokik, uztailaren 15erako antolatzen ari baita. Dagoeneko bizpahiru bilera badira eginak eta lanak banatzen hasiak dira batzordeko kideen artean.

### *Pelikula filmaketa*

Basque Films produktorak pelikula berri baten zenbait pasarte Igantzin filmatzeko asmoa dauka. Gipuzkoan eta Nafarroaren iparraldean eginen omen da eta ekainaren lehenbiziko egunetan hasiko dira filmaketa lanak. Igantzira uztailaren 5ean etortzeko asmoa daukate. Zatirik nagusienak elizan eta kanposantuan filmatuko dituzte eta horretarako baimenak eskatu dituzte dagoeneko. "El lunar" da filmaren izena eta Miguel Angel Calvo Buttinik zuzenduko du.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

**Emakumezkoen Pala Txapelketaren partida bakarra jokatu da Igantzin, atzeratua zegoena. Orduko argazkia da hau. Joan den larunbatean ziren jokatzekoak finalak Hernanin. Bertzalde, Herriarteko Txapelketa jokatzen hasiak dira mutikoak. Ultzama eta Bera egokitu zaizkie taldean eta bi jardunaldi jokatu dituzte.**

Ginko
M. Karmele Tolosa
Hentak hiztegi ondoren ongarriz
31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak:
617 350 025 - 667 694 867

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491



SUNBILLA

# Karrika Nagusian aparkatzea debekatuz bandoa atera da

## Karrika bazterretan utzitako autoek autobusen joan-etorriak oztopatzen dituzte

Jalione OTXANDORENA

Karrika Nagusian dagoen trafiko arazoari aurre egiteko bandoa atera zuen maiatzaren 22an Udalak. Bando honen bidez, udalak jakinarazten du Karrika Nagusian aparkatzea erabat debekaturik gelditzen dela, zamalanak izan ezik. Hauek ere, ibilgailuak mugitu beharko dituzte autobusari pasatzen uzteko. Gai hau ez da oraingo arazoa, aspaldidanik, autobus enpresak udalari beraien kexua jakinarazi zioten, baina oraingo honetan, arazo honek irtenbideren bat aurkitzen ez badu, autobusek herrian sartzeari utziko omen diote. Horrela autobus zerbitzurik gabe gelditukoo litzateke herriko jendea. Bertzalde, bando honen bidez ere, bertan jarritakoa zehatz-mehatz betetzea trafiko arduradunen gain egonen dela jakinarazi du udalak.



ARTXIBOKOA

**Mendaurrera ateraldia eginen du Ulibeltzak mendi taldeak Trinitate Egunean. Ondotik herrian bazkalduko dute.**

### *Ulibeltzak elkartea kostara*

Ekainaren 10erako, Ulibeltzak elkarteak ateraldia antolatu du. Oraingo honetan kostatik eginen den egunpasa izanen da. Irteera Sunbillatikeginen da goizeko 8etan. Geldialdiak berriz, Deba, Lekeitio, Gernika (bertan bazkaria: Zalloberri jatetxean), Bermeo, Gaztelugatxe, eta Mungian izanen dira. 20:00ak aldera herrira itzuliko dira. Bidaia autobusez eginen da, eta autobusaren eta bazkariaren prezioa 35 eurokoa izanen da. Ateraldi honetan izena eman nahi duenak, Itturburu ostatuan egin beharko du.

### *Mendaur Eguna*

Ekainaren 11n, urteroko moduan, Trinitate edo Mendaur eguna ospatuko da. Ulibeltzak mendi taldeko kideak elkarrekin joanen dira Mendaurrera egun horretan eta ondotik, herrian bazkaria izanen dute. Norbaitek mendi taldearekin joan eta bazkaldu nahi badu, ekainaren 7a baino lehen Vidal Ibarrarari erran.

Aldi berean ere, Ulibeltzak mendi taldeak hurrengo ekainaren 2-3 eta 4rako antolatuta zeukan Pettit-Vignemalerako bidaia beste baterako utzi dela jakinarazi du.

### *Bertso afaria*

Ulibeltzak elkarteak ekainaren 17rako bertso afaria antolatu du berriro. Aurreko bertso afarian jende gutti biltzearen arrazoia, egun horretan kinto besta aunitz ospatu zirela izan omen zen, eta bertso afarira joateko gogoz gelditu zen jende ugari. Bertsolariak, Peñagarikano eta Mendiluze izanen dira. Bertso afarira joateko ostatuetan jarrita dauden zerrendetan izena eman.




DONEZTEBE

# Gazte Burrunba Elkarteak kultur ekitaldiak antolatu ditu

## Ekainaren 30ean The Bond Scot Band taldea ekarriko du

**ttipi-ttapa**

Gazte Burrunba elkarteak hainbat ekitaldi antolatzeko asmoa du datozen asteetan. Hasteko, ekainaren 1ean, Errekarekin batera, urpekaritzari buruzko solasaldia antolatu dute Jesus Migeltorena herritarrarekin. Migeltorenak Kantauri itsasoari buruzko dokumental interesgarria egin du eta hori ere ikusgai izanen da.

Bertze solasaldi batean Gorka Bidegain eta Josu Petrirena izanen dira. Bidaiari hauek Kuba aldez alde zeharkatu dute bizikletan eta esperientzia horren berri emanen dute.

Momentuz, Gazte Burrunba elkartearen bilerak Azkarretan egiten dituzte, baina egoitza bat eskuratzeko solasean ari dira Herriko Etxearekin. Udalaren jarrera hagitz ona dela azpimarratu dute gazteek eta abudo lokalen bat lortzea espero dute.

Sanpedro bestak ere gainean dira eta Gazte Burrunbak kontzertu handia antolatu du ekainaren 30erako, ortziralerako. Kataluniako The Bond Scot Band izanen da Santa Luzia plazan eta aitzinetik, herriko D.A.Brut&Blai taldea arituko da. Talde honetan, Zenzerock edo Rigor Mortis talde mitikoetan aritutako musikeriek jotzen dute. Ondotik, Trikidantz taldearekin dantzaldia izanen da, Udalaren laguntzaz.

Joan den ortziralean egin beharreko bileran erabaki behar zuen Gazte Burrunba elkarteak ekainaren 24an ostatuek antolatu duten gaupasan parte hartu edo ez, gonbidatua baitago.




ARGAZKIA: ZALDUA

***Doneztebeko alebin futbol taldea Lesakan txapeldun***

**Denboraldi osoan Lesakan jokatu den Mastegiko futbol-7 txapelketan aritu dira Doneztebeko benjamin eta alebin mailako taldeak. Maiatzaren 14an jokatu ziren azken partidak eta alebin mailan txapeldun suertatu zen Doneztebe A taldea, Elizondoko San Francisco Javier ikastetxeari 3-1 irabazi ondotik. Kategoria honetan, Doneztebe B zazpigarren izan zen, Beti Gazte Bri 1-0 irabazita. Benjamin mailan, berriz, bosgarren posturako partida jokatu zuten Doneztebe A eta Doneztebe Bk eta lehenbizikoek 2-0 irabazi zuten.**

## Herri Krosa ekainaren 25ean eginen da

Erreka Kirol Elkarteak Herri Krosaren 27. edizioa antolatu du. Ekainaren 25ean, igandean, burutuko da laisterketa hau. Inskripzioak egun horretan bertan eginen dira irteera puntuan edo www.herrikrossa.com web orriaren bidez. Jubenilek eta hortik goitirako kategorietako partaideek 3 euro ordaindu beharko dute eta gaztetxoentzat doan izanen da. Prebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak 10:30etan aterako dira. Jubenilak, seniorrak eta beteranoak, berriz, 11:30etan. Prebenjamin eta benjaminek 200 metro egin beharko dituzte; alebinek 500; infantilek kilometro 1, jubenilek eta senior neskek 4 kilometro eta senior mailako gizonek eta beteranoek 8 km. Gizonezkoen artean irabazleak 120 euro eskuratuko ditu, bigarrenak 90, hirugarrenak 60, laugarrenak 45 eta bosgarrenak 30. Emakumeei dagokienez, lehenbizikoak 60 euro lortuko ditu, bigarrenak 45 eta hirugarrenak 30. Bertzelako sariak ere izanen dira.




TAXIA
ZUBIETA
8 BIDAIARIENDAKO TOKIAREKIN
PLATAFORMA ELEKTRIKOZ EGOKITUTA
BI GURPIL AULKIRAKO ETA 5 LAGUNENDAKO
676 553 656 • 948 451 953




HIZKUNTZA IKASTAROAK ATZERRIAN
eta kanpalekuak Espainian
Irlanda
10 - 17 urtekoak
Ekainak 27 - Uztailak 25
4 aste
Bidaia
Familia batekin alojamendua
Ingeles klaseak
Aktibitateak eta irteerak
Asegurua
Monitorea
Monitorearekin, irteera Bilbotik
Artxidona
8 - 14 urtekoak
Uztaila
2 aste
Nazioarteko Kanpalekua
Kortijo batean alojamendua
Ingeles klaseak
Aktibitateak eta irteerak
Asegurua
Monitoreak
Eskatu gure foiletoa
Kanada
14 - 18 urtekoak
Uztailak 1-29
4 aste
Bidaia
Familia batekin alojamendua
Ingeles klaseak
Aktibitateak eta irteerak
Asegurua
Monitorea
Monitorearekin, irteera Bilbotik
Ez bazara hara joaten, ez duzu beraiek bezala hitz egingo
MY WAY
Informazioa: Idoia Garmendia
948 63 70 62
607 269 231


larunbatero
doneztebe n
giro paregabea
ekainak 3
GAUPASA
BATUKADA
BATUGAITU
PERKUSIO TALDEA
ekainak 24
KONTZERTUA
ZOZKETAK!!
2 pertsonendako
bidai bat
zozketatuko da
SARTU
LADIX CABALLERO
ZOZKETAK
gazteentzat
MENU BEREZIAK
JATETXEETAN GAZTEENTZAT
MENU BEREZIAK
Arozena jatetxea..........948450443
Belarra jatetxea..........948450306
Hostal Rte. Ameztia..........948450028
Hostal Rte. Santamaria..948450043
Bar IRRINTZI
SHANTI OSTATUA
MAYLIN ostatua

# Bidasoa

## GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA



Elektronika eta Telekomunikazioak



Zurgintza eta altzarigintza



Elektronika industriala mikroprogramablea



Eraikuntza eta obra zibila

# *Zeure etorkizunari begira*

Gure etorkizunerako inbertsiorik hoberena, prestakuntza ona izatea da. **BIDASOA Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak** hori eskaintzen dio bide hau hautatzen duen ikasleari. Profesional kualifikatuak, eta esperientzia egiaztatua; ekipamendurik hoberenak eta teknologiarik aurreratuenak. Lan munduan sartzeko aukerarik gabe inor gera ez dadin, ikasketak amaituta ikasleen jarraipena egiten du Institutuak.

### KALITATEA

BIDASOA Institutuak Kalitatean oinarritutako gestio-ereduen aldeko apustua egin du. Izan ere, **ISO 9000 ziurtagiria**, Eusko Jaurlaritzak ematen duen **Zilarrezko Q Saria** eta orain berriki jaso den **Kalitatearen Estatuko Lehen Saria** horren lekuko dira. Beraz, EAEko eta Estatu osoko irakaskuntzarekin konparatuz, punta-puntakoa da Bidasoa Institutuaren kalitatea.

Hezkuntza Sailak Ikerketa eta Esperimentazio Zentru izendatua du, irakaslegoaren autogestioa bultzatu bidenabar, emaitza hobeak eta baliabideen probetxamendu osoagoa eskuratzen duelako.

### IKASKETA ESKAINTZA

Bidasoa Institutuak eskaintzen duen goi mailako prestakuntza teknikoari esker, ezagutza eta formakuntza ona duten teknikoak sortzen ditu, lehiakorrak eta gure inguruko enpresentzat estimu handikoak diren teknikoak.

Era berean, lanean ari diren langileentzat *Prestakuntza Iraunkorreko Ikastaroak*; lanik gabe daudenentzat *Lanerako Prestakuntza* eta *Prestakuntza Teknologia Berrietan*, guztietan homologatuak.

**Gure ikastetxeko ikasleen %95 inguru, espezialitate guztietan, lanean hasi da ikasketak bukatu eta berehala.**

### TEKNOLOGIA BERRIAK

Teknologia Berrietan buru-belarri sartua dago Bidasoa Institutua, eta baita Euskadiko berrikuntza teknologikoari buruzko proiektuetan ere: zuntz optikoaren bitartez programen transmisioa CNC makinei; irudi, hots eta datuen aldibereko-transmisioa irrati, intranet eta internetez; bio-eraikuntza; eguzki-zentral fotovoltaiko eta termikoen sarearekiko konexioa; ahotsa interneteko teknologia bihurtzen; elektizitate arloen eta areto orokorren domotizazioa; errendimendu handiko ikasgela; e.a.



Proiektu mekanikoen garapena



Mekanika



Elektrizitatea

Elizatxo,10
20303 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 666 010
Faxa: 943 615 380
secretaria@fpbidasoa.org



Elizatxo, 10 20303 IRUN Tfnoa.: 943 666 010

## NAZIOARTEKO TRUKAKETAK

*Leonardo* eta *Sócrates* programen bitartez, 40 beka baino gehiago bideratu ditu Alemania, Finlandia, Frantzia, Suedia, Britainia Handia eta Grezian. Horrek agerian uzten du Bidasoa Institutuaren nazioarteko proiekzioa eta prestakuntzarik kualifikatuena bilatzeko ahalegina, bidenabar, atzerriko hizkuntzetan trebatuz tokian bertan.

**Praktiken bidez ikasleen %60a enplegatzen da praktikak egin dituen lantegian bertan**

## PRAKTIKAK, ORIENTABIDEA ETA LANBIDERATZEA

Lantegietan egiten diren praktiken bidez ikasleen %60a lanbideratzen da praktikak egin diren lantegian bertan eta urtebeteko epean beste %80a beste enpresetan. Autoenpleguan ere erraztasun handiak ematen ditu: itzuli beharrik gabeko dirulaguntzekin, enpresa sortzeko aholkua emanez... Azken urteotan, gaur egun lanean ari diren 4 enpresa sortzen lagundu du Bidasoa Institutuak. Ikasketak amaitu dituzten ikasleentzat, Orientabide eta Lanbideratze departamentuak LANGAIrekin elkarlanean, kasik %100eko emaitzak lortu ditu. Era berean, lanbideratzeari begira etengabeko segimendua egiten du Institutuak, ikaslegoari aukera berriak bilatzen lagunduz etengabe.

**PREINSKRIPZIO EPEA**
**Ekainaren 7a arte**
**MATRIKULAZIO EPEA**
**Ekainaren 30etik uztailaren 6ra**

# ESKAINTZA AKADEMIKOA
**A eta D ereduetan**

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA
- Mekanizazioa

### ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA
- Neurrira egindako arotzeriaren eta altzarien fabrikazio eta instalazioa

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia-berriztagarriak.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

**SARTZEKO BEHAR DA:**
DBH, IEEko 2. maila, BBB-2, LH1 edo baliokideak
18 urtetik gorakoak froga bidez

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA
- Mekanizazio ekoizpena
- Proiektu mekanikoen garapena

### ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA
- Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena.

### ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA
- Hirigintza proiektuen garapena eta topografia-eraiketa

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA
- Instalazio elektroteknikoak, domotikoak eta energia berriztagarriak
- Telekomunikabide eta informatika sistemak
- Produktu elektronikoen garapena

**SARTZEKO BEHAR DA:**
Batxilergo LOGSE, LH-II, UBI edo baliokideak.
20 urtetik gorakoak
froga bidez

1955/56 2005/06

ITUREN

# Iker Gorosterrazuk Nafarroako bertso paper lehiaketako lehen saria lortu du

## Trinitate Eguna ekainaren 11n ospatuko da Mendaurko kaxkoan

Arkaitz MINDEGIA

Maiatzaren 10ean banatu ziren Nafarroako XX. bertso paper lehiaketako sariak. Ikasleei zuzendua izan zen eta lau mailetan banatu zen. Sei gaztetxo aurkeztu ziren Iturendik Egoitz Gorosterrazu, Iker Gorosterrazu, Itziar Bazterrika, Izaro Ariztegi, Aberri Untxalo eta Garbiñe Olazar. Oraingoan ere Iturenera sari bat hurbildu zaigu. Nagusien mailan, bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailakoetan berriz bertso hoberenak Iker Gorosterrazurenak izan ziren. Zorionak laukote eta segi horrela.

Baina idatziz ez ezik, bapatean ere gero eta indartsuago ditugu herriko bertsolariak. Larunbat honetan egitekoa zen Larraintzarren Nafarroako eskolarteko bertsolari txapelketaren finala. 14 urte artekoen kategorian Ixiar Baztarrikak hartu behar zuen parte eta 14 eta 18 urte artekoan, Alazne Untxalok eta Iker Gorosterrazuk.

### Ikasleak Mendaurren

Maiatzaren 16an goiz goizetik eskolako ikasleek urteroko bisita egin zioten Trinitate ermitari. Ttikienak kotxez igo ziren lehenik urtegietara eta 7 urtetik gorakoak herritik abiatu zuten beraien ibilbidea. Urtegi ondoan gosaldu eta poliki poliki Mendaur kaxkora igo ziren. Eguraldiak aunitz lagundu zien eta egun borobila pasatu zuten gaztetxoek.

### San Migelen bisita

Urtero bezala herrian bisita bat izaten da data hauetan, San Migel santuaren bisita. Maiatzaren 23an, eguerdiko 12etan Iturengo elizara hurbildu zen.

Bere aldeko meza egin zen eta San Migeleri adoratzerako aukera izan zen. Jende aunitz hurbildu zen elizara eta 16:30ak aldera Iturengo plazan agurtu zitzaion.



ARGAZKIA: BETENEA ETXEKOEK UTZIA

### Mendaur eguna

**Datorren ekainaren 11n Mendaurko trinitate eguna ospatuko da. Argazkian ikus daitekenez, ez da oraingo ospakizuna. Goizez Trinitate ermitan elizkizunak izanen dira urtero bezala. Eguerdi aldera enbalseetan bazkaria eginen da Ibintza kultur taldeak antolatuta eta ondotik musika izanen da arratsaldea alaitzeko. Baina jende aunitzek ospatzen dute egun hau eta aurtiztarrak, zubietarrak eta kanpo jendeak ere bazkari eder batekin ospatzen dute eguna urtegietan. Ilunabar aldera herriko plazan dantzaldia izanen da eta besta giroa ziurtatua egonen da.**


## Zure lan aukerak kezkatzen zaitu?

Bortzirietako Toki Ona Institutuak lagunduko dizu.

Enpresa ertain eta handietan lanpostu kualifikatu bat lortzeko ikasketak eskeintzen dizkizugu.

Batxilergoa, edo garai bateko COU, egina baduzu Bortzirietako Toki-Ona Institutuan Industria Ekipoen Mantenimendua Goi Mailako Heziketa Zikloa ikasteko aukera duzu.

Enpresa produkzio sistema automatizatua hobetzea eta martxan mantentzea izango da zure ardura, gizon-emakume langile talde bat egoki antolatuz.



## Hobetu nahi?

- **Industria Ekipoen Mantenimenduan Goi Mailako Teknikari** titulua erdietsiko duzu.
- Horretarako espezialitateko alderdi teknikoak menperatuko dituzu (mekanika, elektrizitatea, neumatika, hidraulika, automatika, segurtasuna, enpresen kudeaketa etab.)
- Ikasketen titulua jasotzeko azken ikasturtearen bukaeran Lantokietako Praktikak egin beharko dira (320 ordu), berau aukeratutako inguruko enpresetan egingo delarik. Hizkuntza jakinez gero, atzerriko enpresetan (Ingalaterra, Frantzia...) egiteko aukera ere izango duzu.

Informazio gehiago: www.pnte.cfnavarra.es/iesbera
**Toki Ona BHI** Eztegara pasealekua 34, 31780 **Bera**
**Tel. 948 625 000**

# Kirol 06 gehigarria




2005-2006eko ligatan aritu diren taldeen

# Denboraldiko balantza

FUTBOLA

# Baztan talde nagusiak ere Preferenterako igoera jokoan du

## Lehen fasean hirugarren izan da sailkapenean eta orain promozioa jokatzen ari da

Aurrera taldeari buruz errandako gauza beretsua erraten ahal da Baztan futbol talde nagusiari buruz. Erregionaleko lehen mailan multzo berean egokitu ziren leitzar eta baztandarrak eta azken partida arte, bigarren posturako borrokan izan dira. Azkenean, baztandarrak hirugarren izan dira, 13 talderen artean. Orain, Preferentera igotzeko promozioan ari da Baztan taldea ere. Hirugarrena izanik, itzuliko partida etxetik kanpo jokatu beharko du, Obanoseko Infanzones taldearen kontra. Maiatzaren 27an jokatu zuten joaneko partida Giltxaurdin eta ekainaren 3-4ko asteburuan itzuliko izanen da Obanosen. Kanporaketa hau gainditus gero, Mendigorriako Mendi eta Iruñeko San Ignacio taldeen arteko norgehiagokaren irabazlaren kontra arituko litzateke Baztan futbol taldea ekainaren 10-11 eta 17-18ko asteburuetan eta hori irabazita Preferentera igoko litzateke. Beraz, behin betiko balantzea orduan egin beharko da.



Argazkia: Toñu ITURZAETA

**Baztan Futbol taldeak Preferentera igateko aukerak ditu oraindik.**

Jubenilak zazpigarren izan dira lehen mailan eta kasik denboraldi osoan Liga Nazionalera igotzeko aukerak izan dituzte.

Kadeteak bigarren mailan aritu dira. Lehen fasean laugarren izan dira. Bigarren fasean, 8 eta 14. postuen arteko multzoan aritu zen eta bigarren izan zen. Beraz, 28 taldetatik bederatzigarren izan da.

Infantilak lehen mailan aritu dira eta ligan bosgarren izan ziren. 8 eta 14 postuen arteko ligaxkan bosgarren izan zen.

| BAZTAN FT. ERREGIONALEKO 1. MAILA | |
|---|---|
| Juan Antonio AGERREA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Oier AMIANO ERASO | ELIZONDO |
| Michel ARRAZTOA BRUST | IRURITA |
| Borja ARRAZTOA GOMEZ | IRURITA |
| Josu ARTETA MITXELENA | ELIZONDO |
| Patxi BARRERENA IBARRA | ZIGA |
| Eduardo BERTIZ GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Eduardo CALVO IRIBARREN | ELIZONDO |
| Eneko ESCUDERO AMIANO | ELIZONDO |
| Ander ETXENIKE MARITORENA | ELIZONDO |
| Josetxo ETXEBERRIA ITURBIDE | ARIZKUN |
| Endika EUGI GOÑI | ELIZONDO |
| Gabriel GARMENDIA MIGELTORENA | AMAIUR |
| Xabier GOÑI ELIZAGOIEN | ELIZONDO |
| Xabier IRIGOIEN ELIZETXE | ELIZONDO |
| Juan Mari LEGARREA TORRES | ELIZONDO |
| Alejandro MOTA PEGUERO | NARBARTE |
| Javier OTERMIN LEIZA | ELIZONDO |
| Koldo RUIZ MIHURA | ELIZONDO |
| Ivan SAN JOSE AMIANO | ELIZONDO |
| Iñaki TELLETXEA ZALDAIN | ELIZONDO |
| Mikel TORRES LETONA | ELIZONDO |
| Pello URRUTIA BARBERENA | IRURITA |
| Jokin URTIZBEREA GOÑI | LEKAROZ |
| Entrenatzaileak: | |
| Fernando ARRAZTOA LARREGI eta Josu ARTETA MITXELENA | |




PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

| BAZTAN F.T. NAFARROAKO JUBENILAK 1. MAILA | |
|---|---|
| Xabier BARBERENA URROZ | IRURITA |
| Franco Daniel CALDAS INDART | ARGENTINA |
| Sergio ESCUDERO EGEA (kadetea) | IRURITA |
| Imanol GAMIO IRUNGARAI | IRURITA |
| Pablo GAZTELUPE GARAIKOETXEA (kadetea) | DONOSTIA |
| Imanol GOÑI ELIZAGOIEN | ELIZONDO |
| Josu GOÑI ONSALO | DONAPALEU |
| Santiago IANTZI IRUNGARAI | ELIZONDO |
| Xabier IRURETA TRANCHE | ELIZONDO |
| Jorge ITURRRIA EGURROLA | ELIZONDO |
| Borja JAIMERENA AZKARRAGA | ELIZONDO |
| Cristiano Francisco JUANBELTZ MALLARINI | URUGUAI |
| Tomas LABORRA BARRAU | ELIZONDO |
| Mikel LARREGI GOÑI | ELIZONDO |
| Asier LIZARTZA ESPARZA | ARIZKUN |
| Denis LIZASOAIN ORTEGA | ELIZONDO |
| Ioritz MITXELTORENA SANSIÑENA (kadetea) | ELIZONDO |
| Iñigo MORENO MARTINEZ | ELIZONDO |
| Ader OTXANDORENA UIKONDOA (kadetea) | ELIZONDO |
| Iker PLAZA MARTINEZ | LEKAROZ |
| Jose Maria SALABURU MATXIÑENA | IRURITA |
| Agustin SANSIÑENA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Entrenatzaileak: Josema OSAKAR ITURRIA-Javier MAIA ETXEBERRIA | |



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Baztango jubenilen futbol taldea zazpigarren izan da sailkapenean.

| BAZTAN F.T. KADETEAK 2. MAILA | |
|---|---|
| Migel Javier AGERREA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Alejandro ARRONDO MUÑOZ | ELIZONDO |
| Patxi BENGOETXEA IBARRA | ELIZONDO |
| Jon FRIAS ITURRIA | ELIZONDO |
| Jokin GARMENDIA IRIARTE | ELIZONDO |
| Tomas GARMENDIA MUÑOZ | ELIZONDO |
| Urtzi GONZALEZ IRURETA | ELIZONDO |
| Estebe GOÑI ONSALO | DONAPALEU |
| Ibai IGARABIDE IPARRAGIRRE | ERRATZU |
| Javier ITURRRIA BARRENETXEA | AZPILKUETA |
| Luis Maria ITURRRIA EGURROLA | ELIZONDO |
| Jorge JAUREGI SOBRINI | IRUÑA |
| Joseba MARTINEZ SAN JOSE | ELIZONDO |
| Jon MORENO MARTINEZ | ELIZONDO |
| Jon QUINTANO FERNANDEZ | ELIZONDO |
| Mikel UNANUA ARIZMENDI | GARTZAIN |
| Entrenatzaileak: Agustin MITXELENA eta Juan Antonio AGERREA | |



ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA

Baztango kadeteek denboraldi polita egin dute.

| BAZTAN F.T. INFANTILAK 1. MAILA | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gorka ALDAKO ARRETXEA | ELIZONDO | Javier GARMENDIA BELASKOAIN | ELIZONDO | Asier OLABE GUTIERREZ | LOGROÑO | Jokin URREAGA ETXENIKE | ELBETE |
| Iker ATXA URBELTZ | ELIZONDO | Beñat GARTXITORENA URDANPILLETA | BERROETA | Egoitz PRIM AGERREBERE | IRURITA | Xabier URROZ ALEMAN | ELIZONDO |
| Mikel AZPIROZ GOIKOETXEA | IRURITA | Andoni GOIENETXE LIZARTZA | ARIZKUN | Javier RIOS MEDRANO | IRUÑA | Javier URRUTIA KARRIKABURU | ELIZONDO |
| Xaban EUGI GOÑI | ELIZONDO | Unai JUANIKOTENA TABERNA | ELBETE | Andoni SALABERRI PRADOS | | Jon VICENTE AZNAL | GARTZAIN |
| Beñat GARMENDIA AMIANO | ELIZONDO | Ekaitz LAMEIRINHAS MUTUBERRIA | ELIZONDO | Iñigo SANZ URIZ | ELIZONDO | Ent: Luis M. Lamerikas, Mikel Larregi eta Agustin Sansiñena | |



ANTXITONEA
Trinketea





Braulio Iriarte, 16
ELIZONDO
948 581 807
www.antxitonea.com

FUTBOLA

# Lesakako Beti Gazteko talde nagusiak maila galdu du aurten

## Emakumeek Gipuzkoako Kopa irabazi dute historian lehen aldiz



ARGAZKIA: JOXE MARI TELLETXEA

**Beti Gazteko talde nagusiak ezin izan dio kategoriari eutsi eta Preferentik lehen mailara jautsi da. Heldu den urtean derbia izanen da Bortzirietan.**

Asteburu honetan jokatzekoa zuen ligako azken partida Beti Gazteko talde nagusiak, baina aspaldian badakite lesakarrek heldu den denboraldian Erregionaleko lehen mailan jokatu beharko dutela, Preferente kategoria galdu ondotik. Joxe Mari Erkiziaren mutilek denboraldi kaxkarra egin dute. Kasik itzuli oso bat eman zuten garaipenik gabe eta 2006ko lehen garaipena apirilean ailegatu zen. Jokalari aunitz izan dira entrenatzen eta gogotsu aritu dira, baina emaitzek ez dute lagundu. Ezta epaileek ere auniztan, zakar aritu gabe jokalari gutiagorekin akautu behar izan baitituzte hainbat partida. Liga akautzeko lau partida falta zirela, matematikoki galdu zuten kategoria.

Jubenilen taldeak denboraldi bikaina egin du Gipuzkoako lehen mailan. Partida baten faltan hirugarren postuan zeuden eta oraindik Ohorezko Mailara igotzeko promozioa jokatzeko borrokan ari ziren. Bigarren itzulian 16 partida egin dituzte galdu gabe (lehenbiziko 13ak segidan irabazita).

Kadete mailako taldeak denboraldi polita egin du lehen mailan eta hamekagarren postuan akautu du.

Emakumeen taldea, Gipuzkoako ligan seigarren izan da, baina kopan bikain ibili da. Maiatzaren 20an Gipuzkoako finala irabazi zuen Lasarteko Ostadar taldearen kontra eta denboraldiko titulu bakarra eman dio Beti Gazteri. Aurten, lehen aldiz, kadete mailakonesken futbol-8 taldea ere zelairatu da.

Infantil mailako taldeak, azkenik, Nafarroako lehen mailako ligan eta kopan jokatu du.

| BETI GAZTE GIPUZKOAKO PREFERENTE | |
|---|---|
| Fernando SUSPERREGI BERGARA | LESAKA |
| Joseba TELLETXEA ZAMORA | LESAKA |
| Iñaki ZUDAIRE AJONA | LESAKA |
| Eneko FERNANDEZ MARITXALAR | LESAKA |
| Jon TELLETXEA ZOZAIA | LESAKA |
| Jabier LARRUY LARRAÑAGA | ETXALAR |
| Joseba PIKABEA BALEZTENA | LESAKA |
| Iñigo LASAGA ARBURUA | ETXALAR |
| Imanol ALMANDOZ UBIRIA | LESAKA |
| Peio ETXEBESTE ZAYAS | LESAKA |
| Gotzon Mirena ARENAS SALAZAR | ARANTZA |
| Ikor IRATZOKI MIKELARENA | DONEZTEBE |
| Jon APEZTEGIA GONZALEZ | DONEZTEBE |
| Mikel IRIGOIEN IRIGOIEN | LESAKA |
| Beñat SARALEGI ALTZATE | LESAKA |
| Beñat MAIA ARAKUES | LESAKA |
| Asier HERNANDORENA LIZASO | LEGASA |
| Joseba JUANENA PETRIRENA | DONEZTEBE |
| Jon Andoni LARRALDE ETXARTE | LESAKA |
| Mikel IRIARTE PIKABEA | LESAKA |
| Iban SANTESTEBAN BERGARA | DONEZTEBE |
| Joanes IRIGOIEN PEREZ | ETXALAR |
| Entrenatzailea: Joxe Mari ERKIZIA OTXOTEKO | |

Zelaieta
Maquinaria de panadería • Bakery machines
Zalain industrialdea, 19. Postakutxa - BERA
Tel.: 948 631 004 - Faxa: 948 631 308
e-posta: info@zelaieta.com
www.zelaieta.com

ZELAIETA
ZELAIETA TAILERRAK
okindegirako tresneria

| BETI GAZTE JUBENILAK (GIPUZKOAKO 1. MAILA) | |
|---|---|
| Iñigo ALTZUGARAI EGOZKUE | LESAKA |
| Jon OTXOTEKO ABUIN | LESAKA |
| Jon OLAIZOLA ETXEGARAI | LESAKA |
| Beñat IRAZOKI ALTZUGUREN | ETXALAR |
| Ladis CABALLERO LANZ | LESAKA |
| Xabier MARITXALAR ETXABIDE | LESAKA |
| Mattin GONZALEZ VAHL | LESAKA |
| Jon ALBERRO RETEGI | LESAKA |
| Xabier MARITXALAR ERRANDONEA | LESAKA |
| Ibai MUJIKA MAIA | BERA |
| Eneko MITXELENA ETXEBERRIA | IGANTZI |
| Xabier FAGOAGA MAIA | LESAKA |
| Ladis SATRUSTEGI ALTZUGARAI | LESAKA |
| Pablo TABERNA ESTONBA | LESAKA |
| Ibai BEREAU ZAPIRAIN | LESAKA |
| Markel SUAREZ ANTXORDOKI | LESAKA |
| Ander MAIA ARAKUES | LESAKA |
| Oier IANTZI ORDOKI | LESAKA |
| Iban LOPEZ KLEMENTE | NARBARTE |
| Gaizka GALLARDON ALTZUGARAI | ETXALAR |
| Ibai ORDAX OLABE | DONEZTEBE |
| Mikel TELLETXEA GONZALEZ | DONEZTEBE |
| Entrenatzailea: Kotto IANTZI. Delegatua: Aitor AROTZENA | |


ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA
Beti Gazteko gazteen taldeak denboraldi bikaina egin du eta hirugarren izan da. Azken unera arte Ohorezko Mailara igotzeko borrokan izan da.

| BETI GAZTE KADETEAK (GIPUZKOAKO 1. MAILA) | |
|---|---|
| Daniel de ARRIBA BENGOETXEA | IRUN |
| Fred RAMOS LASAGA | LESAKA |
| Aritz TELLETXEA ANTZIZAR | LESAKA |
| Jon SALABERRIA TXOPERENA | LESAKA |
| Jaime SEIN OSINAGA | DONEZTEBE |
| Lander ARBIOLA AGIRRETXE | LESAKA |
| Fran RAMOS LASAGA | LESAKA |
| Mikel Aitor FLORES KONPAINS | LESAKA |
| Iñigo OSTIZ ESKALADA | DONEZTEBE |
| Asier BURRARENA UBIRIA | LESAKA |
| Ikor TELLETXEA ANTZIZAR | LESAKA |
| Gorka ORDAX INBULUZKETA | DONEZTEBE |
| Jon JUBERA MARIEZKURRENA | DONEZTEBE |
| Igor GURRUTXAGA ERRANDONEA | LESAKA |
| Aritz TELLETXEA ETXEPARE | LESAKA |
| Jabier PARDO PEREZ | URDAZUBI |
| Mikel CENOZ VERDU | URDAZUBI |
| Entrenatzaileak: Igor ROMANO ZUBIRIA eta Endika MENDEGIA IANTZI | |


ARGAZKIA: AITOR AROTZENA
Beti Gazteko kadeteek denboraldi polita egin dute, aunitz lehen urtekoak direla kontuan hartuz. Sailkapenaren erdi aldean gelditu dira.


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
ERAKUSKETA
Bereau etxea · LESAKA · Tel.: 948 637 266 · 948 631 511 · 607 226 891 · Faxa: 948 637 511

# FUTBOLA

| | |
|---|---|
| Izaskun ZORIETA | BERA |
| Iratí MITXELENA | ETXALAR |
| Jone ZELAIETA | BERA |
| Goretti ETXEGARAI | LESAKA |
| Isabel ETXEBESTE | LESAKA |
| Garazi MITXELENA | ETXALAR |
| Miren ZUDAIRE | LESAKA |
| Lorea FLORES | LESAKA |
| Izane TELLETXEA | BERA |
| Nagore INDAKOETXEA | LESAKA |
| Ainhoa HETEGI | BERA |
| Maitane ERDOZAIN | BERA |
| Maider AGINAGALDE | IRUN |
| Elena MUÑOA | IRUN |
| Erika TXOPERENA | BERA |
| Naiara TRIGUEROS | BERA |
| Irantzu ETXEBESTE | BERA |
| Amaia ENETERREAGA | LESAKA |
| Entrenatzailea: Koldo ERKIZIA | |



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Beti Gazteko emakumeek seigarren akautu zuten liga eta Gipuzkoako Kopako txapeldun izan ziren maiatzaren 20an.

| | |
|---|---|
| Maddi SESE | BERA |
| Naia ESNAOLA | BERA |
| Amaia TELLETXEA | LESAKA |
| Olaia IANTZI | LESAKA |
| Amaia ZAPIRAIN | LESAKA |
| Itziar TELLETXEA | LESAKA |
| Alaia ALTZUGARAI | LESAKA |
| Itxaso OTXOTEKO | LESAKA |
| Ainara MARTIN | LESAKA |
| Maddi TABERNA | LESAKA |
| Ane GONZALEZ | LESAKA |
| Naiara IRIGOIEN | LESAKA |
| Entrenatzaileak: Koldo ERKIZIA eta Iñaki ZUDAIRE | |



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Beti Gazteko kadete mailako nesken futbol-8 taldea lehen aldiz zelairatu da aurten, neskak pixkanaka trebatzen joateko.

| | |
|---|---|
| Fernando ETXEGARAI LOPEZ | LESAKA |
| Miguel OSTIZ GARTXITORENA | DONEZTEBE |
| Ander ORDOKI AYNETO | LESAKA |
| Jon ETXEBESTE ZAYAS | LESAKA |
| Javier ETXEBESTE ZAYAS | LESAKA |
| Jorge OSTIZ ESCALADA | LESAKA |
| Unai GURRUTXAGA ERRANDONEA | LESAKA |
| Javier CARRION LUKANBIO | LESAKA |
| Jon MIGELTORENA LEITZA | LESAKA |
| Mikel MAIA MADARIAGA | LESAKA |
| Josu SANJURJO ALTZURI | LESAKA |
| Ander OLAIZOLA ETXEGARAI | LESAKA |
| Ander ABUIN YEPES | LESAKA |
| Mikel ARRIOLA ALAVA | LESAKA |
| Eñaut IPARRAGIRRE ZINKUNEGI | ETXALAR |
| Fernando ITURRIA CARRILLO | BERA |
| Daniel QUESADA GONZALEZ | ETXALAR |
| Andoni SAN MARTIN ZINKUNEGI | DONEZTEBE |
| Gorka TELLO LOIGORRI | LESAKA |
| Beñat ORONOZ INDA | LESAKA |
| Entrenatzaileak: Xabier MARITXALAR ETXABIDE eta Iñigo ALTZUGARAI EGOZKUE . Delegatua: Jaime OSTIZ | |



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Beti Gazteko infantilek Nafarroako infantilen lehen mailako ligan eta kopan aritu dira.

FUTBOLA

# Berako Gure Txokoa taldeak ez du denboraldi ona egin

Halere, jautsiera postuetatik urrun ibili da urte osoan



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

**Berako Gure Txokoako futbol talde nagusiak iaz baino arazo guttiago izan du Gipuzkoako Erregionaleko lehen mailari eusteko, baina igotzeko postuetatik ere urrun xamar ibili da.**

Gure Txokoako futbol talde nagusiak joan den urtean baino arazo guttiago izan ditu aurten maila mantentzeko, baina ezin erran denboraldi ona egin dutenik. Urte osoa sailkapenaren erdialdean eman dute, jausteko arrisku handirik gabe, baina gehienetan gibeleko postuak aitzinekoak baino hurbilago zituztela. Azkenean hamargarren izan dira 16 taldeko multzoan. Tarteka-tarteka partidu ikusgarriak ere eskaini dituzte (Andoaingo Euskalduna liderrari 3-0 irabazi zioten Matzadan), joku gehiago eskaintzeko moduan daudela erakutsiz. Akaso, taldeari motibazio aldetik falta zaion apur hori heldu den denboraldian izanen dute, Beti Gazterekin Bortzirietako derbia jokatuko baitu berriz ere.

Jubenilek liga polita egin dute Gipuzkoako bigarren mailan. Igoera faserako sailkatzea lortu zuten beraien multzoko buru izanik gainera. Hasierako fase horretan ederki aritu ziren eta 14 partidetatik 11 irabazi zituzten, 1 berdindu eta 2 galdu. Baina joan den urtean bezala, igoera fasean ezin izan zuten eta ez dute igotzerik lortu, seigarren izan baitira.

Kadeteek, Gipuzkoako bigarren mailan, laugarren izan dira hasierako fasean eta ez dute igoera faserako sailkatzea lortu. Kopan bosgarren izan dira beraien multzoan.

Infantiletan, Gipuzkoako lehen mailan aritu dira. Aurtengoan talde gaztea zutela nabaritu da eta ez dute emaitza onegirik eskuratu. Ligan zazpigarren izan ziren, bakarrik bi partida irabazita. Kopan seigarren izan ziren eta 3 partida irabazi zituzten.

| GURE TXOKOA ERREGIONALEKO LEHEN MAILA | |
|---|---|
| Xabier GARMENDIA IRIZAR | BERA |
| Iñaki ZELAIETA ERASUN | BERA |
| Asier IRATZOKI ZUBIETA | BERA |
| Mikel ALTZURI ASTONDOA | BERA |
| Imanol OIARTZABAL URANGA | BERA |
| Mikel LARRETXEA ERRANDONEA | BERA |
| Jon Mikel MATXIARENA ALDALUR | BERA |
| Aitor IRATZOKI GELBENTZU | BERA |
| Gorka FEITO BERGARA | LESAKA |
| Jon ERRANDONEA ETXEBERRIA | BERA |
| Alain MORCILLO ARTIEDA | BERA |
| Iñigo ALTZUGUREN ARNIS | BERA |
| Ander ALTZURI ASTONDOA | BERA |
| Iñaki IRATZOKI OHARRIZ | BERA |
| Joseba PETRIRENA ANSALAS | BERA |
| Eduardo ETXEBESTE IANTZI | BERA |
| Matias TELLETXEA URANGA | BERA |
| Aitzol IRIZAR ARISTIA | BERA |
| Iñaki ESKUDERO OLAZIREGI | BERA |
| Javier MAÑERU MARTIN | BERA |
| Joseba IRIARTE RETEGI | BERA |
| Xabi ALTZURI ASTONDOA | BERA |
| Txomin ELGORRIAGA ASTONDOA | BERA |
| Entrenatzailea. Ganix ZUBIETA • Ordezkaria: Luis IRAZOKI ETXEGARAI | |



BERATARRA
ARGIÑAK

Jose Ignacio MARITORENA LARRALDE
DONEZTEBE 670 489 337
Pedro BERASATEGI DAGERRE
BERA 617 346 378

# FUTBOLA

| GURE TXOKOA JUBENILAK (GIPKO 2. MAILA) | |
|---|---|
| Ekhiotz ZUBIETA BERTIZ | BERA |
| Xikor KORTARI GOIKOETXEA | BERA |
| Iñigo JAUREGI AGIRRE | BERA |
| Jon ERRANDONEA MARTIN | BERA |
| Beñat IRATZOKI ISASI | BERA |
| Jokin IANTZI IRIGOIEN | BERA |
| Iñigo ALDAZABAL ZAMARREÑO | BERA |
| Aritz ARBELAITZ IGOS | BERA |
| Ugaitz ADO PRIETO | BERA |
| Gwendal LARQUE SANJURJO | BERA |
| Ion IRATZOKI TELLETXEA | BERA |
| Julen JIMENEZ ANDRES | BERA |
| Imanol CALDERON AGIRRE | BERA |
| Iñigo ZELAIETA ALONSO | BERA |
| Beñat ITURRIA CUARTERO | BERA |
| Jon Esteba AGARA SILVA | BERA |
| Aitor IANTZI GOIENETXE | BERA |
| Iñigo ERKIZIA IRATZOKI | BERA |
| Entrenatzaileak: Angeltxo ARANIBAR eta Joakintxo IANTZI | |



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

Gure Txokoako jubenilek igoera fasea jokatu dute, baina iaz bezala, ez dute lehen mailara igotzea lortu.

| GURE TXOKOA KADETEAK (GIPKO 2. MAILA) | |
|---|---|
| Jose Mari ETXABE SANZ | BERA |
| Joseba GARMENDIA IPARRAGIRRE | BERA |
| Asier GARCIA ERRANDONEA | BERA |
| Andoni MARTINEZ GUERRA | BERA |
| Julen LA TORRE GOIA | BERA |
| Mikel AGARA MARTINEZ | BERA |
| Mikel MORCILLO ARTIEDA | BERA |
| Imanol MORENO ALUNDA | BERA |
| Andoni RIOPEDRE UITZI | BERA |
| Jeremias PEREZ CONTELL | BERA |
| Gorka TOLOSA BURLADA | BERA |
| Mikel GOIENETXE PIKABEA | BERA |
| Asier CALDERON AGIRRE | BERA |
| Jonatan GOIENETXE BALDA | BERA |
| Entrenatzailea: Jon Mikel MATXIARENA ALDALUR | |



Argazkia: Jose Mari TELLETXEA

Gure Txokoako kadeteek ez zuten igoera faserako sailkatzea lortu eta Kopan bosgarren izan ziren.

ugaldea
asesoria • aholkularitza

Bidasoa Kalea 41
31780 Bera
tel: 948 63 02 01
faxa: 948 63 02 55
e-mail: asesoria@ugaldea.com

Rafa Pombar Sainz
aholkularitza fiskala-kontablea

| GURE TXOKOA (INFANTILAK GIPKO 1. MAILA) | |
|---|---|
| Patxi CASTILLO GRAZIARENA | BERA |
| Imanol ENDARA IRIGOIEN | BERA |
| Joseba MARTINEZ GUERRA | BERA |
| Asier ANDUEZA OSTOLAITZ | BERA |
| Bittor TXANTRE IRATZOKI | BERA |
| Luka REMIRO BLANCO | BERA |
| Julen ERRANDONEA MARTIN | BERA |
| Shamal VAZQUEZ TARAZONA | BERA |
| Unai IGOA MIGELTORENA | BERA |
| Julen BALEZTENA RUDI | BERA |
| Ruben PEDROSA MEDINA | BERA |
| Mikel MARTINEZ AGIRRE | BERA |
| Aitor ESCAGUES DOZAGARAT | BERA |
| Asier GARCIA ONARRIZ | BERA |
| Ibon ERDOZAIN IBARRA | BERA |
| Aitor GARMENDIA IPARRAGIRRE | BERA |
| Diego ALVAREZ SALGADO | BERA |
| Ibai BLANCO PEREZ | BERA |
| Imanol OIARTZABAL DOS SANTOS | BERA |

Entrenatzailea: Mikel ALTZURI eta Patxi RODRIGUEZ



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

Gure Txokoako infantilek Gipuzkoako liga eta Kopa jokatu dute.

Saneamientos GARE



- Bainugelako altzari eta osagarriak.
- Hidromasai dutxa eta bainuontziak.
- Berogailu instalakuntzak.
- Gas natural instalakuntzak.
- Tituludun teknikariak.



C/Kanttonberri, 10 Bajo
Bera
Tel.: 948631107 / Fax.: 948631002
Movil: 608976034

E.M.

EMBALAJES
M. MARTINEZ

Palet, kaiola eta kaxak
· Teilatuetako egiturak
haritz eta pinuzkoak

Zalain industrialdea BERA
Tfnoa. 948 630 702 948 631 446
Faxa: 948 630 666

ARETO-FUTBOLA

# Gure Txokoako areto-futbol taldeak behetik goiti egin du denboraldian

## Hasiera kaxkarraren ondotik, seigarren postuan akautu du Berako taldeak



ARGAZKIA JOSE MARI TELLETXEA
**Gure Txokoako areto-futbol taldeak kategoria galdu du azkenean.**

Aurten Gure Txokoa Areto Futbol taldeak gipuzkoako bigarren mailan jokatu du (izenez aldatu du maila honek, joan den urtean lehen maila deitzen baitzen). Joan den urteko arazoak errepikatuko ote zirenaren kezka sortu zuen hasiera hagitz kaxkarrari (hasierako bost partidak galtzen hasi zen) buelta ematea lortu zuen, eta emaitza onak ematen duten konfidantzaren laguntzarekin goiti begira jarri zen Berako taldea. Garaipen bat bertzearen ondotik lortuta, seigarren postura goitu eta denboraldi bukaera arte bertan mantendu da.

Lesioei dagokienez, zorte haundirik ez dute izan. Patxiku atezainak behatzean izandako arazoak, adibidez, jokalari postuetan aritzen direnak atezainaren postuan txandatuz egon behar izatea eragin baitu.

Hala ere, jende gaztea entrenatzen hasi da eta datorren urteari begira taldearen etorkizuna ziurtatuta dagoela erraten ahal da.

### Deialdia

Beraz, abuztuaren bukaeran hasiko den hurrengo denboraldiari begira, areto futbolean jokatzeko gogoekin dagoen zonaldeko gazteei dei egiten zaie animatu eta entrenatzera ager daitezen.

| GURE TXOKOA ARETO FUTBOL TALDEA | |
|---|---|
| Jon ALTZUGUREN ERRANDONEA | BERA |
| Igor PANDO ARAMENDI | BERA |
| Sabino GOMEZ RODRIGUEZ | BERA |
| Sergio JABALERA UBRIC | BERA |
| Aritz PEREZ ARTIEDA | BERA |
| Patxiku ARTIEDA APEZTEGIA | BERA |
| Jabier IRIARTE SANSIÑENA | ETXALAR |
| Jose Luis TAPIA IGUZKIAGIRRE | BERA |
| Jose Manuel PORTU BERASATEGI | BERA |
| Lino ZAMORA TURRILLAS | OIEREGI |
| Iban TAPIA EZEIZA | BERA |
| Andoni LASAGA APEZTEGIA | BERA |
| Unai LARRETXEA MATXINENA | BERA |
| Iñaki ENDARA PETRIRENA | BERA |
| Entrenatzailea: Jabier IRIARTE SANSIÑENA | |




SASKIBALOIA

# Berako Toki-Ona Bortziriak taldea lehen mailara igo da aurten

Infantil mailako neskak lehen aldiz kantxaratu dira



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

**Senior mailan egin duen bigarren denboraldian, Nafarroako Lehen Mailara igotzea lortu du Toki-Ona Bortziriak saskibaloi taldeak.**

Nafarroako senior mailako bigarren kategorian Toki-Ona Bortziriak saskibaloi taldeak denboraldi honetan egin duen lana bikaina izan da. Lehenbiziko fasean beraien multzoko buru izan ziren eta horrek, lehendabizikotik bederatzigarrenera bitarteko ligaxka jokatzeko eskubidea eman zien. Bigarren fase honetan ere ederki aritu dira eta bigarren izan dira, lehenbiziko sailkatutakoarekin puntu kopuru berarekin, baina puntuen aldea kontra zutela. Emaitza honek, heldu den urtean lehen mailan aritzeko eskubidea ematen die Toki-Ona Bortziriak saskibaloi taldekoei. Halere, etorkizuna ez dago hain garbi, Jesus Alacid entrenatzaileak aipatu digunez. Nonbait, taldekiren bat edo bertze taldea uztekotan da, nahiz saskibaloi utzi beharrean dagoelako, nahiz Irungo talde batekin fitxatu behar dutelako. Gauzak honela, lehendik ere aunitz ez direla kontuan hartuz, egoera dexente korapilatuko litzateke lehen mailan konpetitu ahal izateko.

Infantil mailako neskek lehenbiziko denboraldia jokatu dute Nafarroako Kirol Jolasetan. Bistan denez, esperientzia eza ordaindu dute, baina pixkanaka jokua hobetu ere bai. Otsailaren 4an denboraldiko lehenbiziko partida irabazi zuten Berako neskek. Nafarroako Kirol Jolas hauetan kirolari guzien partehartzea saritzen da. Horregatik, talde guziek guttienez zortzi jokalari aurkeztu behar dituzte eta guziek jokatu behar dituzte guttienez hamar minutu.

Infantil mailako neskekin ez ezik, txikiagoekin ere hasi dira. Hamar urteko zortzi neskekin eta hiru mutikorekin, pre mini-basket mixto lehiaketan aritu ziren, Nafarroako Kirol Jolasen barrenean. Hemen ere, pixkanaka saskibaloiaren oinarriak ikasi eta jolasten gozatzeko helburua izan dute, jokalari ttikiek.

| TOKI-ONA BORTZIRIAK: NAFARROAKO SENIOR 2. | |
|---|---|
| Jon IRATZOKI MARTIKORENA | BERA |
| Fermin BERRUETA PEREZ-LUCAS | BERA |
| Iñigo IRATZOKI MARTIKORENA | BERA |
| Mikel IRATZOKI BELARRA | BERA |
| Iker JUAREZ IRAOLA | BERA |
| Imanol ETXEBERRIA GARCIA | LESAKA |
| Francisco TELLETXEA OTXOTEKO | LESAKA |
| Francisco Javier OIARTZABAL ALTZUGARAI | LESAKA |
| Mikel GARCIA GARCIA | LESAKA |
| Roger BERGMAN | ETXALAR |
| Entrenatzaileak: Imanol ETXEBERRIA GARCIA eta Roger BERMAN | |
| Delegatua: Jesus ALACID CLEMENTE | |

| TOKI-ONA BORTZIRIAK: INFANTIL NESKAK | |
|---|---|
| Begoña TAPIA | BERA |
| Olara ZIA DANBORIENA | BERA |
| Maialen TXANTRE IRATZOKI | BERA |
| Leire ZIA DANBORIENA | BERA |
| Elisabet IRATZOKI ZELAIETA | BERA |
| Leire ELTZAURDIA MENDIBERRI | BERA |
| Itxaro ERRANDONEA ARANIBAR | BERA |
| Andrea IRATZOKI GUIMON | BERA |
| Ainhoa ZELAIETA | BERA |
| Amaia IZQUIERDO | BERA |
| Marian MUSGO | BERA |
| Maria IRIGOIEN | BERA |
| Entrenatzaileak: Jesus ALACID eta Unai ALACID | |



ARGAZKIA: JOSE MARI TELLETXEA

**Infantil mailako nesken taldea lehen aldiz aritu da Nafarroako Kirol Jolasetan. Helburua, saskibaloian trebatzen joatea bada ere, lehenbiziko garaipeak ere ailegatu dira.**

ESKUBALOIA

# Baztango Kirol Taldea 1. Maila Nazionalean ongi aritu da

## Atarrabiako Beti Onak taldearen kontrako bi derbiak irabazi ditu Magna-BKT taldeak



Argazkia: ONDIKOL

**Magna-BKT eskubaloi taldea Nafarroa osoko bigarrena da gaur egun, Ohorezko Mailan ari den Lizarrako Itxakoren gibeletik.**

Baztango Kirol Taldeko emakumeen eskubaloi talde nagusiak denboraldi polita egin du bigarren urtez Lehen Maila Nazionalean. Sailkapenaren erdi aldean izan da beti eta arazorik ez du izan kategoria eusteko.

Gainera, erran daiteke Nafarroa osoko bigarren eskubaloi taldea dela gaur egun Magna-BKT: Lizarrako Itxako Ohorezko Mailan dago eta bigarren postu hori Magna-BKT eta Beti Onak taldearen artean erabaki da Lehen Maila Nazionalean. Elizondon nahiz Atarrabian jokatutako bi derbiak irabazi dituzte baztandarrek eta sailkapen orokorrean ere aitzinetik gelditu direnez, ohorezko postu ez ofizial hori beraientzat da.

### Nafarroako jokalari eta entrenatzaile onena

Liga polita egiteaz gain, bakarkako sariak ere ailegatu dira Magna-BKT taldera. Itxaso Salaburuk, lehen maila nazionaleko Nafarroako jokalari onenaren saria eskuratu du eta Joxe Iturzaetak Nafarroako entrenatzaile onenarena.

Dena den, aurtengoa akitu da eta hurrengo denboraldiari begira ari da Magna-BKT taldea. Taldea indartzeko bi fitxaketa egin dituzte dagoeneko: Irati Berruezo eta Ildikó Valaczkai. Gainerako jokalariek segituko dute, salbuespen hauekin: Adriana Stefanescu lateral errumaniarrak eta Eszter Banto atezain hungariarrak taldean ez dute segituko, eta Nerea Lizasoain eta Miren Latasa zalantzekin dabiltza ikasketak direla eta.

| MAGNA-BKT SENIORRAK 1. MAILA NAZIONALA | |
|---|---|
| Lucia PARINI | BUENOS AIRES (ARG) |
| Eszter BANTO | HUNGARIA |
| Izaskun DANBORIENA URRUTIA | AZPILKUETA |
| Itxaso SALABURU HUARTE | ELIZONDO |
| Miren LATASA BARBERENA | ALKOTZ |
| Itziar JAEN MARITORENA | ELIZONDO |
| Josune ITURZAETA BARNO | ELIZONDO |
| Ainhoa IRAIZOZ CIRES | ULTZAMA |
| Ainara UNANUA ARIZMENDI | GARTZAIN |
| Andrea RODRIGUEZ | ELIZONDO |
| Adriana STEFANESCU | ERRUMANIA |
| Nerea LIZASOAIN ORTEGA | ELIZONDO |
| Amaia IRIGOIEN CORDOBA | ELIZONDO |
| Jaione LARRE TORRESELIZONDO | |
| Entrenatzaileak: Joxe ITURZAETA eta Enrique PETRIRENA | |
| Delegatua: Juan Manuel ETXEBERRIA | |
| Ofiziala: Jose Luis RUIZ MENDIBURU | |
| Fisioterapeuta: Aintzane RAMOS | |

MUGAIRE iturgintza

· Iturgintza
· Kalefakzioa
· Gasa

Tfnoa eta Faxa: 948 592 183
Mugikorra: 629 407 895
ORONOZ - MUGAIRI

ttipi ttapa

# Liderrak *gure eskualdean*

eta

## *Nafarroa Garaiko Mendialdean*



### IRAKURLE KOPURUAK (milakoetan)




### SEXUAREN ARABERA




### ADINAREN ARABERA




### IKASKETA MAILAREN ARABERA




**DATU ITURRIA:**

**CIES 2006**
**1. azterketa aldia**

| BKT KADETEAK | |
|---|---|
| Miren SOBRINO LOPEZ | ELIZONDO |
| Oihane PRIM AGERREBERE | IRURITA |
| Noelia QUINTANILLA IPARRAGIRRE | ELIZONDO |
| Garazi URTASUN ERASO | IRURITA |
| Maite GOIKOETXEA APEZTEGIA | IRURITA |
| Naiara OTEIZA RAZKIN | ORONOZ-MUGAIRI |
| Maite RODRIGUEZ TELLETXEA | ELIZONDO |
| Nerea GIL ZIAURRIZ | ELIZONDO |
| Ines LABORRA BARRAU | ELIZONDO |
| Leticia REKARTE MENDIBURU | ELIZONDO |
| Itsaso ARIZMENDI APEZETXEA | ORONOZ-MUGAIRI |
| Angela NAGORE SANCHEZ | ELIZONDO |
| Itziar GOIENETXE AGIRRE | ELIZONDO |
| Nerea MORTALENA MASKOTENA | ELIZONDO |
| Bidane APEZETXEA BERRO | ORONOZ-MUGAIRI |
| Maialen ARREGI TORRES | ELIZONDO |
| Izaskun AIZPURU ETXEBERRIA | ELIZONDO |
| Entrenatzaileak: Enrique PETRIRENA | |



ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA
Baztango Kirol Taldeko kadeteek denboraldi polita osatu dute

# Ttikienak ere indartsu datoz

## Kadete mailako neskak kopako finalerdietara ailegatu dira

Senior mailako Magna-BKT taldeak denboraldi ederra egin du, baina gibeletik, emakumezkoen eskubaloi harrobi polita dator Baztanen. BKTk kadete mailako taldea kantxaratu du eta denboraldi ona egin du. Ligan, hasierako fasean laugarren izan ziren, hasiera txarra egin baldin bazuten ere. Gero, kopan bikain ibili ziren eta finalerdietaraino ailegatzea lortu zuten. Dena den, Enrique Petrirena entrenatzailea gustora zegoen, jokalari aunitz lehen urtekoak baitira.

Nafarroako Kirol Jolasetan, infantil mailan Lekaroz taldea aritu da.



ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA
Lekarozko infantilak Nafarroako Kirol Jolasetan aritu dira.



LA BAZTANESA S.A.
Autobus Enpresa
Lineako autobus eta turismo bidaien zerbitzua
Santiago, 25 · ELIZONDO · 948 580 129

ESKUBALOIA

# Errekako talde nagusiak mailari ongi eutsi dio aurtengoan

## Jubenilak hirugarren izan dira



Argazkia: ZALDUA

**Aitzineko urteetan baino gutixeago sufritu du aurten Errekako talde nagusiak kategoriari eusteko.**

Errekako eskubaloi talde seniorrak denboraldi hasiera hagitz ona egin zuen, eta aurredenbordian San Fermin Txikito torneoa irabazi zuen. Liga hasiera ere ona izan zen, baina gero emaitza txarrez betetako partidu saila etorri zen. Halere, azkeneko partiduetan berriz ere bere maila eman zuen Errekak, eta azkeneko 6 partiduetatik 4 irabazi ondoren (Boscos, Cantolagua, Loyola eta Anaitasuna B), problema haundirik gabe mailari eustea lortu zuten.

Kopan jubenilekin aritu ziren batez ere, eta ez zuten lehendabiziko fasetik pasatzerik izan.

### Jubenilek denboraldi bikaina

Denboraldi bikaina burutu dute Errekako gazteek, eta hirugarren postuan bukatzea lortu dute, Portland eta Anaitasuna talde indartsuen azpitik. Etorkizun haundiko jokalariak direla erakutsi dute. Seguraski, baten batek Erreka utziko du heldu den urtean talde hobe batean aritzeko.

### Infantil mailako neska eta mutikoak

Infantil neskek lehendabiziko urtea dute eta emaitza sobera onak izan ez badira ere, urte guztian zehar konpromisu haundia erakutsi dute. Seguru ondorengo urteetan emaitzak ailegatuko direla, horrela lan egiten segituz gero.

Infantil mutikoak gehienak bigarren urtekoak direla nabaritu da. Joan den urtean beheitiko postuetan ibili ondoren, aurten denboraldi polita egin dute eta titulurako pelean egon den multzoan sartu dira.

### Alebin neskak

Alebin nesken talde bat ere entrenatzen ibili da Maider Irazokiren pean, nahiz eta partidurik ez jokatu.

| ERREKA SENIOR 2. MAILA NAZIONALA | |
|---|---|
| Pablo ELIZONDO | DONEZTEBE |
| Joan Mari ARTAZKOZ | DONEZTEBE |
| Xabier BAÑARES | DONEZTEBE |
| Jon MEDRANO | IRUN |
| Daniel URROZ | GAZTELU |
| Eduardo ALMANDOZ | DONEZTEBE |
| Karmelo REKARTE | DONEZTEBE |
| Iban EZKURRA | DONAMARIA |
| Jesus IRIGOIEN | DONEZTEBE |
| Alfredo ELORZA | DONAMARIA |
| Joseba LEGARRA | DONEZTEBE |
| Mikel BERTIZ | DONEZTEBE |
| Josu URREAGA | DONEZTEBE |
| Joanmi HUALDE | DONEZTEBE) |
| Iñigo ETXEBERRIA | ELGORRIAGA |
| Ramontxo ETXEBESTE | DONEZTEBE |
| Entrenatzaileak: Jabiertxo ALMANDOZ eta Narciso "Xixo" LARRAZA | |
| Delegatua: Leire UTERGA | |

APEZTEGIA BERRIA

BURDINDEGIA

Baratzerako behar dituzun erremintak

Elizagibela, 1 - DONEZTEBE - Tfnoa: 948 450 994



| ERREKA JUBENILAK MUTIKOAK | |
|---|---|
| Sergio BLANCO PRIMO | DONEZTEBE |
| Fermin DEL VILLAR PEGUERO | NARBARTE |
| Pascual BERTIZ BALEZTENA | DONEZTEBE |
| Javier DEL VILLAR PEGUERO | NARBARTE |
| Ibai MEOKI | DONEZTEBE |
| Ibai MARIEZKURRENA | DONEZTEBE |
| Xabier INDABERE | LEGASA |
| Mikel ETXEKOLONEA | DONEZTEBE |
| Aitor BERTIZ | DONEZTEBE |
| Xabier BABAZE | NARBARTE |
| Entrenatzailea: Txomin MINDEGIA | |
| Delegatua: Joan TELLETXEA | |



Ligan hirugarren sailkatu dira Errekako gazteak.

ARGAZKIA: ZALDUA

| ERREKA INFANTILAK MUTIKOAK | |
|---|---|
| Joseba GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Jon ANDIARENA | DONEZTEBE |
| Mikel GRAZENEA | DONEZTEBE |
| Mattin JAUNSARAS | DONEZTEBE |
| Unai GARTZIARENA | DONEZTEBE |
| Xabier IBARROLA | DONEZTEBE |
| Alberto CORRETJA | DONEZTEBE |
| Miguel OSTIZ | DONEZTEBE |
| Josetxo EZKURRA | DONEZTEBE |
| Emilio ZABALA | DONEZTEBE |
| Kepa MIGUEL | DONEZTEBE |
| Aurelio BERTIZ | DONEZTEBE |
| Daniel GARCIA | DONEZTEBE |
| Julen DORRONSORO | DONEZTEBE |
| Unai SAPPUPO | DONEZTEBE |
| Entrenatzailea: Iban MINDEGIA | DONEZTEBE |



Errekako mutiko infantilek denboraldi polita egin dute aurten.

ARGAZKIA: ZALDUA

| ERREKA INFANTILAK NESKAK | |
|---|---|
| Andrea APEZTEGIA | DONEZTEBE |
| Jugatx TELLETXEA | DONEZTEBE |
| Olaia OLAZAR | ELGORRIAGA |
| Maialen BELARRA | DONEZTEBE |
| Aitziber SANTESTEBAN | DONEZTEBE |
| Amara MARIZEKURRENA | DONEZTEBE |
| Goretti URRUTIA | SALDIAS |
| Oihana SAN MIGUEL | DONEZTEBE |
| Nerea TELLETXEA | DONEZTEBE |
| Marta OTERMIN | DONEZTEBE |
| Oihana MITXELENA | DONEZTEBE |
| Paula APEZTEGIA | DONEZTEBE |
| Maria ESTANGA | DONEZTEBE |
| Ainhoa JORAJURIA | DONEZTEBE |
| Nekane IRURETAGOIENA | DONEZTEBE |
| Josune GAGO | DONEZTEBE |
| Entrenatzaileak: Leire UTERGA eta Haizea ERKIZIA | |



ARGAZKIA: ZALDUA

Alebin mailako neskak hasi dira entrenatzen.



ARGAZKIA: ZALDUA

Errekako neska infantilek konpromiso handia erakutsi dute.

ERRUGBIA



Utzitako argazkia
Sarako Izarra errugbi taldean jokalari ainitz bildu dira aurten eta erreserba taldea ere egin da.

# Sarako Izarra errugbi taldeko erreserbak ere zelairatu dira

## Bigarren taldea finalerdietara ailegatu zen

Sarako Izarra errugbi talde nagusiak, lehen eta bigarren seria hartzen dituen txapelketan bederatzigarren bukatu zuen. Ez zituen ez igoera ez eta jautsiera faseak jokatu. Beraz, heldu den urtean maila berdinean segituko du. Aurten, ez dute joku ona erakutsi eta horretan zerikusia izan dute kolpatuek ere. Sault taldearen kontra Stéphane Barneix zauritu zen eta denbora ainitzentzat zelaietik urrundua da. Emaitzetan eragina izan du bere hutsak.

Bigarren taldeak eman ditu denboraldi honetako pozik handienak. Erreserba talde bat osatu ahal izatea, ezin pentsatua zen batzuentzat duela hilabete batzuk, baina sasoin ederra egin du eta partida gehienak irabazi ditu. Euskal Kosta eta Landesetako komiteko kanporaketetarako sailkatu zen. Maiatzaren 6an erdifinala jokatu zuten Mendikoten Pomarez taldearen kontra, bainan 14-11 galdu zuten. Halere, zorionak eman behar zaizkie egin duten sasoinarengatik.

Zuzendariak kontent eta fier dira senior taldeaz. Aurten, jokalari ainitz bildu direlakoz erreserba taldea egin da, urte ainitzez ahantzia izan dena. Sarako Izarrako haur eta gazteak ere sustatu eta zoriondu behar dira, larunbat guziz hor baitira lanean.

| SARAKO IZARRA RUGBY TALDEA | |
|---|---|
| Philippe MOKORENA | ZIBURU |
| Sebastien GOROSURRETA | SARA |
| Vincent BLOND | SARA |
| Pascal LARRONDE | ITSASU |
| Laurent NARBAITZ | URRUÑA |
| Fabien NARBAITZ | URRUÑA |
| Iñaki ZUMEAGA | SARA |
| Patxi BARANDIARAN | SARA |
| David BASAKU | KANBO |
| Mathieu SALABERRY | SARA |
| Xavier TAPIA | SARA |
| Santxo ERNAGA | ARROSA |
| Panpi ELIZALDE | SARA |
| Matias JORAJURIA | ZURAIDE |
| Beñat JORAJURIA | ZURAIDE |
| Jerome OLAIZOLA | OLETA |
| Daniel DOLOSOR | SENPERE |
| Patxi JAUREGUI | SARA |
| Ramuntxo BERROUET | SARA |
| Fabrice IPARRAGIRRE | SARA |
| Pascal SATHICQ | SARA |
| Mickael LABORDE | SARA |
| Xabi AZCARRAGA | SARA |
| Jerome SALHA | SARA |
| Beñat GENZA | ITSASU |
| Beñat BERROUET | SARA |
| Pantxo ORGOGOZO | URRUÑA |
| Patrick ETCHEGARAY | SARA |
| Mathieu BRISSON | SARA |
| Christophe ICHURIBEHERE | SARA |
| Stéphane BARNEIX | SARA |
| Bruno MARTIN | SARA |
| Gregori ELIZALDE | SARA |
| Jonathan DEMARQUE | DONIBANE |
| Jerome PRADERE | SARA |
| Michel Etcheverry | SARA |

Entrenatzaile. Lehen taldea, Jean Philippe AMORENA eta Michel BRISSON.
Bigarren taldea: Jean Marie ALBISTUR.
Talde Teknikoa: Michel ORDOKI, Beñat LOUSTONAU, François CHAULET.




Kanttonberri, 1 • BERA
948 63 12 18

KATEA - BIKE

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA



## ERRUGBIA-SENPERE



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

### Senpereko errugby taldea

Xutik ezkerretik eskuinerat.
J. Lannette (entrenatzailea), D. Gaillet, I. Ezkurra, L. Oberson, V. Prada, R. Ubiria, V. Lagrenade, R. Laskube, E. Lasaga, I. Iziaga, C. Carrere, C. Quatrevieux (entrenatzailea)
Beherean ezkerretik eskuinerat.
K. Mauvaka, J. Bergara, C. Lavigne, J. Ubiria, M. Jorajuria, J. Fagoaga, J.P. Saint Jean, M. Hollander.

## ESKUBALOIA-SENPERE



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

### Gizonen senior lehen taldea

Bigarren urtez segidan, ekipa hori Lurraldeko Excellence sailean lehiatzen da. Urte hastapena zaila izan zen lau galtzekin baina taldeak jakin du burua altzatzen eta txapelketako 8garren tokirat upatu da. Aurten ere emaitza onak ardietsi nahi ditu. Hortako lan haundia egin dute Donibane Lohizunetik etorri diren jokalari berriekin.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

### Nesken senior taldea

Joko ona egiten ari da talde hori, behar bada hobea litake, entrenatzaileen ustez, seriotasuna eta motibazioa haundiagoa izanen balira. Urtea ongi hasi dute bereziki Donibane Lohizuneko jokalari berrieri esker.



ERRUGBIA

# Lesioei aurre eginez hirugarren izan da Baztan Rugby Taldea

## Gazte mailako taldea ongi aritu eta laugarren izan da



UTZITAKO ARGAZKIA

Aurtengoan ez du Ohorezko Mailara igotzeko promozioan sartzea lortu Baztan Rugby Taldeak, baina halere, denboraldi polita egin du.

Aurten senior mailako Baztan Rugby Taldeak, arazo handiak izan ditu jende aldetik, luze joan diren lesio aunitz egon dira eta hori ekipoaren mailan sumatu da. Senior A taldea berriz ere 1. maila nazionalean aritu da eta nahiz eta aurreko urteko emaitza lortzea (Ohorezko Mailarako promozioa jokatzea, alegia) beraien esku egon, azkenean eta lehen aipatutako arazoengatik hirugarren postuan gelditu ziren, bigarren gelditu zen taldeak baino punto bat guttiago eginda. 7 partida irabazi, 1 berdindu eta 4 galdu ondotik 35 puntu egin zituen.

Senior B taldea Nafarroan lehiatu zen eta 4 taldeko ligaxka batean aritu zen. Sei partidetatik 3 irabazi, 2 berdindu eta bat galdu ondotik ekipoa lehengo postuan sailkatu zen. Talde hau gazte mailako jokalariak seniorrekin trebatzeko baliagarria izaten da.

### Gazte taldea

Etorkizuneko talde ederra sortzen ari da Baztan Rugby Taldean. Jokalari gehienak kadete mailakoak dira eta horregatik beraiek baino 2 urte zaharragoekin aritu izan dira. Halere hiru partida irabazi dituzte eta partida aunitzetan bakarrik indarragatik irabazten zieten. Beraz, teknika aldetik arras onak izanen diren jokalariak egiten ari dira. Nafarroa eta Aragoiko ligan aritu dira eta ligan 4. postuan sartu dira, sei talderen artean. 3 partida irabazi, bat berdindu eta 6 galdu dituzte.

### Bertze gauzak

Aurten ligako konpetizioaz gain, Nafarroa eta Euskadiren arteko partida Lekarozen jokatu zen eta nahiz eta Euskadi aise irabazi, giro ederreko partida ikusi ahal izan zen.

Honetaz gain, ekaina bukaeran, Euskariansen zazpikako errugbi txapelketa Baztanen jokatuko da (Elizondoko Giltxaurdin ekainaren 24an). Ligaxka moduan jokatuko da, zazpi herrialdeetako taldeak denak denen aurka ordu erdiko partidetan.

| BAZTAN RUGBY TALDEA JUBENILAK | |
|---|---|
| Mikel ALDAKO ARRETXEA | ELIZONDO |
| Xabier ALDAKO ARRETXEA | ELIZONDO |
| Urki ALDAKO BERTIZ | ELIZONDO |
| Asier ARRETXEA BIDEGAIN | NARBARTE |
| Joanes ERREA IRIBARREN | ELIZONDO |
| Gil GOIENETXE AGIRRE | ELIZONDO |
| Joseba HUARTE UGARTE | ELIZONDO |
| Iñaki IRAIZOZ PEREZ | ESAIN |
| Javier IRIGOIEN URRUTIA | ERRATZU |
| Jagoba JUANIKORENA IDIART | BERROETA |
| Haritz MUÑOZ | ELBETE |
| Ruben OZKARIZ MARTINEZ | OLAGUE |
| Ander PEREZ NUÑEZ | ELIZONDO |
| Ander SAN MARTIN IABEN | BURUTAIN |
| Juan Antonio SOBRINO ARTAZKOZ | ELIZONDO |
| Jose Angel VILLANUEVA IRURITA | EGOZKUE |
| Entrenatzailea: | |
| Pello OBREGOZO ISTILART | IRURITA |

| BAZTAN RUGBY TALDEA (2005-2006) | |
|---|---|
| Unai ABANZABALEGI BASKARAN | IRUÑA |
| Manex AIZPURU IRIBARREN | ORONOZ-MUGAIRI |
| Iñigo ARREGI JAURENA | ELIZONDO |
| Josetxo BARBERENA IRAIZOZ | IRAIZOTZ |
| Iñaki BARBERENA IRAIZOZ | IRAIZOTZ |
| Iñaki BENGOETXEA MARTINEZ | IRUÑA |
| Ruben BEUNZA ERIZE | OSTIZ |
| Patxi BIDART | BAIGORRI |
| Julio CALLEJA RODRIGUEZ | IRUÑA |
| Javier DEL CASTILLO ARRETXEA | ELIZONDO |
| Pedro EZKURRA OSAKAR | URRIZOLA-GALAIN |
| Jon FRANZESENA ZUBILLAGA | ELIZONDO |
| Manex GOIENETXE GARMENDIA | ELIZONDO |
| Jon IDOATE IRIGOIEN | LEKAROZ |
| Mikel IRAIZOZ PEREZ | ESAIN |
| Jose Miguel IRIBARREN IRIGOIEN | ERRATZU |
| Mariano IRIBARREN IRIGOIEN | AMAIUR |
| Asier IZARRA NAVARRO | IRUÑA |
| Eneko JAUNARENA ARRAZTOA | ARIZKUN |
| Arturo LANDA MANSOA | IRUÑA |
| Pablo MARITXALAR ETXENIKE | SUNBILLA |
| Allande MUGIKA | USTARITZ |
| Iban MUGIKA | USTARITZ |
| Angel MUNARRIZ SAGASETA | ORONOZ-MUGAIRI |
| Iban MUTILBA RUIZ DE AZUA | ANOZIBAR |
| Sergio NAVARRO ALUNDA | ARRAIOZ |
| Patxi OBREGOZO ISTILART | IRURITA |
| Pello OBREGOZO ISTILART | IRURITA |
| Xabi OROZKO EGILUZ | IRUÑA |
| Juan Angel PEROTXENA URANGA | ELIZONDO |
| Igor RUIZ DE LARRINAGA IDOATE | ELIZONDO |
| Jon SANSIÑENA ZUBIETA | ELIZONDO |
| Miguel Mari URRUTIA ARIZTIA | ARIZKUN |
| Xabi URRUTIA BENGOETXEA | ELIZONDO |
| Oskar VILLABONA CENOZ | LATASA ODIETA |
| Jon Ander ZANGITU TORRONTEGI | IRUÑA |
| Entrenatzailea: | |
| Javier INBULUZKETA LUKIN | ORKOIEN |

FUTBOLA

# Leitzako Aurrera Igoera Promozioa jokatzen ari da

## Bigarrena izan da ligan eta bi kanporaketa gainditu beharko ditu Preferentera igotzeko

Leitzako Aurrera futbol talde nagusiak liga ederra egin du Erregionaleko lehen mailan eta bigarren sailkatu ondotik, Preferentera igotzeko Promozioa jokatzen ari da orain. Bigarren postu horrek, lehen kanporaketako itzuliko partida etxean jokatzeko eskubidea ere eman dio. Infanzones taldearen kontra jokatzekoa zuen joan den asteburua joaneko partida eta asteburu honetan Leitzan jokatuko du itzulikoa. Denboraldi osoan bezalaxe, zaleen animoa behar beharrezkoa izanen dute Aurrerakoek. Hau gaindituz gero, beste kanporaketa bat ere gainditu beharko luke Aurrerak, Gazte Berriak eta Bidezarra taldeen arteko norgehiagokaren irabazlearen kontra, Preferentera igotzeko helburua bete ahal izateko.

Ez litzateke marka makala izanen, Aurrerako futbolariek bulegoko eta zelaia zaintzeko lanak ere egin behar izaten baitituzte. Joan den udan, zuzendaritza batzordeak utzi egin zuen eta futbolariek bere gain hartu zituzten lan horiek. Bazkide kopurua handitzea ere lortu dute.

**Jubenilen taldea**

Aurten jubenil mailako taldea ere zelairatu du Aurrerak Nafarroko bigarren mailan. Talde oso gaztea da eta futbolean trebatzeko helburuarekin atera dira. 14 talderen artean hamaikagarren izan dira, 7 partida irabazi eta 19 galdu ondotik. Dena den, heldu den urterako baliagarria izango da aurten lortu duten esperientzia. Horietako batzuk handiekin ere jokatu dute partiduren bat edo beste.

| AURRERA F.T. ERREGIONALEKO 1. MAILA | |
|---|---|
| Ikor BENGOETXEA PERURENA | LEITZA |
| Garikoitz ETXEGARAI MIGELTORENA | LEITZA |
| Iñigo DE CARLOS LAZKANO | LEITZA |
| Josu URKIOLA OLANO | LEITZA |
| Antton ABRIZA PEREZ | LEITZA |
| Ibai ELIZALDE ESKUDERO | LEITZA |
| Ibon URTIAGA MUNARRIZ | IRUÑEA |
| Mikel AZPIROZ HERNANDORENA | LEITZA |
| Unai SAGASTIBELTZA IREGI | LEITZA |
| Eneko BARBERIA VILLABONA | LEITZA |
| Eneko ANDUEZA ARAMENDIA | LEITZA |
| Jon ARANGOA ABADIA | LEITZA |
| Hegoi BENGOETXEA PERURENA | LEITZA |
| Joanan JIMENEZ KANFLANKA | LEITZA |
| Arkaitz BENGOETXEA BERASATEGI | LEITZA |
| Aitzol GOMEZ SOLA | LEITZA |
| Javier URTIAGA MUNARRIZ | IRUÑEA |
| Fran URKIOLA ETXEGIA | LEITZA |
| Iñaki ZABALO BETELU | LEITZA |
| Unai OLANO | LEITZA |
| Ikor AIZAGIRRE | LEITZA |
| Iñaki ANTOLIN | LEITZA |
| Joseba SAGASTIBELTZA | LEITZA |
| Eneko GOROSTIAGA | EZKURRA |
| Entrenatzaileak: Juantxo LARRAIA. 2. entrenatzailea: Angel IRUJO | |
| Materialaren enkargatua: Iñaki ARRIZURIETA «ARRI» | |

| AURRERA F.T. JUBENILAK (NAFARROAKO 2. MAILA) | |
|---|---|
| Josu TOLEDO | LEITZA |
| Garikoitz EIZMENDI | LEITZA |
| Imanol ARANGOA | LEITZA |
| Asier ZUBILLAGA | LEITZA |
| Joseba MUTUBERRIA | LEITZA |
| Mikel ZUBILLAGA | LEITZA |
| Iñaki GALAÑENA | LEITZA |
| Unai TIJERO | LEITZA |
| Eloi GARRIDO | LEITZA |
| Antton URKIOLA | LEITZA |
| Eder GASTEARENA | LEITZA |
| Luis LASARTE | LEITZA |
| Beñat ZABALETA | LEITZA |
| Eneko ZABALETA | LEITZA |
| Imanol URKIOLA | LEITZA |
| Andoni ZABALETA | LEITZA |
| Ekaitz ASTIBIA | LEITZA |
| Iker URKIOLA | LEITZA |
| Jon Denis CALONGE | LEITZA |
| Zuhaitz LEITZA | LEITZA |
| Iñigo ALDUNTZIN | LEITZA |
| Inazio PERURENA | LEITZA |
| Dani ALVAREZ | LEITZA |
| Joanes ZEBALLOS | LEITZA |
| Entrenatzaileak: Josepe AZPIROZ eta Titto SAEZ | |



Aurrera taldeak denboraldi ona egiten ari da eta igotzeko lehian sartu da.



Gazte mailako taldeak esperientzia baliagarria hartu du aurten.

MALERREKA

# Leurtzako urtegien ingurua zaintzeko 37.000 euroko laguntza



## Urrozko eta Beintza Labaiengo Udalek eskuratuko dute

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak, Urrotz eta Beintza Labaiengo udalei 37.000 euroko diru laguntza onartu die. Horrekin, Leurtzako urtegiaren inguruko natur eta aisialdirako eremuan moldaketa eta ekimen batzuk burutu beharko dituzte, bisitariei ingurumenari buruzko informazioa emateko ekitaldiak antolatu eta dauden azpiegiturak eta bidexkak zaindu. Horrelako proiektuak bultzatuz eta lagunduz, ingurumena babestu nahi dute, eta bidenabar aniztasun biologikoa modu iraunkorrean erabili, hezkuntza eta sentsibilizaziorako baliatuz.

Leurtzako urtegia, 1996ko irailaren 2az geroztik natur eta aisialdirako eremu babestua izendatua da. Ultzamako Lizaso kontzejuan dagoen Orgiko Ariztiarekin batera, Nafarroa osoan bakarrak dira. Lizasoko Kontzejuak ere 76.000 euroko dirulaguntza hartuko du Orgin lanak egiteko.

Leurtzan nahiz Orgin egin beharreko ekimenak, Aniztasun Biologikoaren Kontserbazio eta Erabilpen Jasangarrirako Nafarroako Estrategiaren barnean kokatzen direla goraipatu du Nafarroako Gobernuak. Aisialdiaz eta naturaz gozatzea bultzatu nahi da, beti ere ditugun baliabideak eta ingurumenaren errespetuan heziketa emanez.

ASIA FUNTS BERMATUA




Rural Kutxak, bere inbertsio-funts berriaren bidez, Asian inbertitzeko aukera eskaintzen dizu; izan ere etorkizunari begira hazteko itxaropen handiak dituen merkatua baita.
Honako abantaila hauek eskaintzen dizkizu **ASIA FUNTS BERMATUAK:**

- Txina (Hang-Seng), Japonia (Nikkei 225) eta Koreako (Kospi 200) burtsa-indizeen **HILEKO BATEZ BESTEKO ERREBALORIZAZIOAREN %100.**
- 3 kontsolidazio-maila errentagarritasunean: **%10, %20 eta %30.**
- Bermearen epemugan, 3 urte, **hasierako inbertsioaren %100**a gehi lehenago zehaztutako burtsa-indizeen errebalorizazioa jasoko duzu.

www.ruralvia.com

RURAL MULTIFONDO 75, FI, errenta aldakor globaleko funts mistorik onenari emandako bi sari irabazi zituen 2005ean, Standard &Poor's eta Intereconomia-Morningstar Sarietan.

* Inbertsio fondoaren berme-epean %10, %20 edo %30eko errebalorizazioa lortuko balitz, aipatu errebalorizazioa finkatua geldituko litzateke, eta burtsa-indizeek duten bilakaeraren arabera errentagarritasun handiagoa ere lortuko litzateke.
Rural Cesta Asiática Garantizado delako fondoa, FI-a C.N.M.V.an inskribatua dago 3.451 zenbakiarekin.
Eskura duzu argibide foiletoa Rural Kutxako bulegoetan.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

OITZ

# Herriko alabek urteroko bazkaria egin zuten maiatzaren 1ean

## Hamabortz emakume bildu ziren Oizko Posadan





Ainara MAIA

Orain dela lau urte paratu zuten Oitzen sortutako emakumeek lehenbiziko hitzordua maiatzaren 1ean, eta orduz geroztik urtero elkartzen dira langilearen egunean bazkari elegante bat egiteko, elkar ikusteko eta elkarri urteko albisteak kontatzeko.

Aurten ere, ohiko tokian bildu dira hamabost emakume Oizko ostatu berrituan, hamabost emakume gaxte lirain eta alai. Denak ere Oizko alabak eta denbora bateko nahiz gaur egungo beuren kontutxoak izaten dituzte mintzagai mahainguruan… ai! Garai bateko parrandak Bordatxon edota edozein bestatan… Orain gehienak Oiztik kanpo bizi dira, baina herriarekin etengabeko harremana dute denek ere. Urteroko ohitura dute argazki bat denak batera ateratzeko…

Aurten ere norbaitek huts egin du, baina heldu den urtean seguru bazkarian izanen dela!












KULTURA

# Institutuetako ikasleen azken kontzertua ekainaren 2an izanen da

## Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasuko 500 ikasle arituko dira

ttipi-ttapa

Urtero bezala, Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasuko institutuetako 500 bat ikasleek, aipatutako bost herri hauetan, musika arloan ikasturtean zehar ikasi eta landu dutena erakusteko, kontzertuak eskaintzen ari dira. Lehena, maiatzaren 19an eskaini zuten Berako Eztegara pilotalekuan. Ondokoa Leitzako pilotalekuan eskaini zuten maiatzaren 23an. Aste bat beranduago, maiatzaren 30ean, Doneztebeko pilotalekuan aritzekoak ziren. Azken aurreko emanaldirako, Sakana aldera joanen dira. Ekainaren lehenean, Altsasuko pilotalekuan arituko dira. Itzulia, Baztanen bukatuko dute. Biharamunean, ekainaren 2an, Lekarozko institutuko pilota lekuan, aurtengo azken kontzertua eskainiko dute. Emanaldi guziak arratsaldeko 17:30etan izanen dira.



Institutuetako musika ikasleak emanaldiak eskaintzen ari dira herriz herri.

Kantutegiari dagokionez, mota ezberdinetako abestiak entzuteko aukera izanen da. Euskal abestiak, Sorotan Beleren *Arratsalde honetan* kantuarekin edo Benito Lertxundiren *Loretxoarekin*, Irlandako Folka The Corrs taldeak mundura ezagutarazi duen *Lough Erin Shore* kantu herrikoiarekin, Greziako eta Kubako musika, baita ikasleek asmatutako abesti bat.

ARANO

# Mal de Ojo taldearen kontzertua Kontzejuan

Kontxi KLABER

Maitzaren 12an, ostiralarekin, Kontzeju taberman Mal de Ojo taldeak kontzertua eskaini zuen. Gaueko 23:00etan hasi eta goizaldera arte jende dexente inguratu zen bertara. Emaitz eta Enkarnik modu ezin hobean eman zioten hasiera astebeteko oporraldiari Emaitz eta Enkarnik.

### *Mikel Aralarkoa*

Mikel Aralarkoa urteroko bisitaldian etorri zen Aranora maiatzaren 20an. Herritarrak zain zeuzkan 12etarako Tximitxeneko atarietan eta ailegatu bezain azkar maldak gora elizarako bidea hartu zuten, kanpai soinu artean.



## GOIZUETA

# Goizuetako eta Aranoko bi ehiza-barrutiek bat egin dute ofizialki



ARTXIBOKOA

**Artikutzako parajeak telebista eta zineman ikusteko aukera izanen dugu.**

**Esteban AROTZENA**

Hurrengo denboraldi-tik aurrera Goizuetako eta Aranoko ehiztariak koto berean egonen dira, baina legearen aurrean bakarrik. Bakoitzak bere eremuan edo mugen barrenean egin beharko baitu ehiza ofizialki bi herriak barruti berekoak izanen baldin badira ere.

Aranok ez omen ditu betetzen Nafarroako Gobernuak kotoetarako jarriak dituen baldintzak. Beraz, Goizuetarekin bat egitea beste aukerarik ez omen zuen, baina lehen aipatu bezala, egiaz ez da deus aldatuko bi herrietako ehiztariek horrelaxe erabaki dutelako.

Ehizako gaiekin segituz, Basauntz elkarteak 3.000 euro ordainduko dizkio herriari ehiza-barrutiaren truke. Hurrengo urteetan KPI-a gehituko zaio kopuru honi.

### *ETBrako seriea Artikutzan*

Gure herriko parajeak estimu handian dauzkate azken hilabete hauetan zinegile eta telebista produktoreek. Hurrengo udazkenean zine aretoetan ikusgai egonen den luzemetraia errodatu zuten Artikutzan lehengo neguan, eta aste honetan berriz, hurrengo denboraldian ETB-1ek eskainiko duen telesaila grabatzen hasi dira Goizuetako auzo eder horretan bertan.

Balbemendi izeneko telesail honek 70na minutuko 15 kapitulu izanen ditu eta Goenkaleko arduradun den Jabi Elortegik zuzenduko du. Kanpoko irudi guztiak Artikutzan grabatuak izanen dira, eta barrenekoak berriz, Donostiako Miramongo estudioetan.

### *Umore Onako mus txapelketa*

Umore Onaren urteroko mus txapelketa maiatzaren 20an jokatu zen, eta «Txurri» eta Jabierek eraman zuten sari nagusia: lau lagunentzat asteburua landaetxe batean. Bigarren saria berriz, Fagollaga jatetxean bi afari, Txamo eta Estebanek eskuratu zuten.

### *Saltsa ikastaroa bukatu da*

30 herritarrek hartu dute parte maiatzaren 20an bukatutako hamar asteburuko saltsa ikastaroan. Hurrengo ikasturtean jarraitzeko asmoa omen dute partehartzaile gehienek.

## ARESO

# Haur, guraso eta eskolen arteko topaketa egin zen maiatzaren 13an

## Zazpigarren Haur Olinpiadaren barruan



ARGAZKIA: JUANA MARI

### *Sendotza*

**Herriko zortzi gaztek sendotza sakramentua hartu zuten eta hurrengo egunean Migel aingeruaren bisita izan genuen.**

**Juana Mari SAIZAR**

7. Haur Olinpiadak egin ziren maiatzaren 13an. Prebentzioko teknikaria den Teresak kronikatxo hau idatzi du: *«Goiza grisa esnatu zen, baina hori guri bost axola, koloreak gurekin zetozen, barnean eta kanpoan, oso egun atsegina pasa genuen. Egon ez zinetenok jakin nahi al duzue zer egin genuen? Joko kooperatiboak: bi parakaidas bitxirekin, saguak eta katuak, gora eta bera, korrika handik eta hemendik (zer, nekea!). Herri jolasak: lokotxak, sokatira, uztai musikalariak (eskerrik asko Mauro!- kotxeko musika jartzeagatik). Zagi-dantzarekin gozatu, Aresoko bideskatik, mendi eta baserri tartean (oso ongi bi zagiak, ausartak bolteretak ematen aldapan!). Dantzari eta txistulari eta trikitilariekin disfrutatu eta segidan bazkaldu, ongi eta giro onean. Umeen antzerki eta dantzekin parra egin, inbidia pasa eta bero samar, ez zegoelako lekurik sobran. Txokolateak energiak eman zizkigun Jaionek eta Jonek jarri ziguten martxa eta dantzatzeko (eskerrik asko biei, animazioarengatik!). Goizuetakoei agurtu (bi autobus!) eta jaso».*

LEITZA

# Diru eskasiari aurre eginez Kultur Astea arrakastatsua izan da

Aurtengoan hogeita zortzigarren edizioa bete du

**ttipi-ttapa**

XXVIII. Kultur Astea egin zen joan den aste osoan. Maiatzaren 21ean umeei zuzendutako Pinta Eguna egin zen (haurrek aire librean margo lanak eginez) eta igande honetan, maiatzaren 28an, eskulangileen erakusketarekin bukatu da. Normalean bi asteburu osoosoo hartzen du Kultur Asteak, baina aurten *«baliabide ekonomikoak oso murritzak direla eta»* asteburu bakarra antolatu du Kultur Taldeak. Halere, Guraso Taldeak, Prebentzio Programarako teknikariak, Atekabeltzako gazteek edo talogileek emandako laguntza eskertu nahi izan du Kultur Taldeak. Eskulangintza erakusketan Euskal Herri osoko 32 eskulangile izan ziren.



ARTXIBOKOA

**Aurtengoan 28. aldia bete du Kultur Asteak. Argazkiak baditu urte batzuk.**

## *Oihan aprobetxamenduak beherapenetan*

Jakina da azken urteetan oihan aprobetxamenduetatik hasieran eskatzen dena baino diru gutxiago jasotzen duela Udalak, beste leku guzietan bezalaxe. Orain ere, lehendik egindako enkanteak hutsean gelditu eta %10 eta %20ko beherapenarekin enkantera atera ditu Udalak hiru lote. Lehenbiziko lotea, Ibarla inguruko 895 alertze zuhaitz dira, 535,62 metro kubiko zur emanen dutenak. Hasierako prezioa, 13.979,68 eurokoa da (gehi BEZa). Bigarren lotea Koskain inguruko 4.044 zuhaitz dira, 991,63 metro kubiko su-egur emanen duten pinuak eta douglas izeiak. Hasierako prezioa 4.908,72 eurokoa da (gehi BEZa). Hirugarren lotea, Lerinarte inguruko 4.183 pinu dira, 848,41 metro kubiko egur emanen dutenak. Hasierako prezioa 4.199,62 eurokoa da. Eskaintzak ekainaren 6ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira udal bulegoetan. Enkantea hutsean geldituko balitz, %10eko beherapenarekin eskaintza berriak aurkezten ahal dira zortzi lan eguneko epean. Sobreak, epeak bukatu eta biharamoneko 13:00etan irekiko dira.



PERTSONAIA

Migel Mari ELOSEGI

## «Hartz arrea Pirinioetan» liburua aurkeztu du biologoak

Migel Mari Elosegi biologo eta basozain leitzarrak hartzari buruzko bere bigarren liburua, «Hartz arrea Pirinioetan» aurkeztu zuen maiatzaren 19an liburutegian. Elkar argitaletxearen eskutik argitaratutako liburu honen aurretik, saiakera arloko Juan Zelaia saria eskuratua zuen «Hartzak Pirinioetan XXI. mendean» lanarekin. Idazlan hau Pamielak argitaratu zuen 2004an. Orain argia ikusi duen liburuaren helburua *«hartzaren errealitatea osotasunean islatzea»* izan dela adierazi du Elosegik. Bere ustez, ezin da hartzaren edo artzainaren arteak aukeratu, *«biak berdin garrantzitsuak direlako»*.

Arkb arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Goitzai 7 · 31880 Leitza · 645005478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucesba@msn.com

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
Telefonoa: 943 623 055
San Marcial, 7 - 4 - IRUN

BAZTAN

# Giltxaurdi udal kirol instalazioen kudeaketa berriz ere lehiaketara atera du Udalak

## Gesport enpresak ekonomikoki ez dela bideragarria segurtatu du

**ttipi-ttapa**

Elizondoko igerileku estalien udal kirol instalazioen kudeaketa-zerbitzurako kontratua etetea adostu dute Balleko Udalak eta Gesport enpresak, bideragarritasun ekonomikorik ez duela segurtatu ondotik. Honela erabaki zuen Udalak, EAren aldeko botuekin eta UPNren abstentzioarekin. Ondorioz, kudeaketa zerbitzua kontratatzeko lehiaketa deialdi berria eginen du Balleko Udalak.



Argazkia
**Gaurko egunean 1.034 abonatu ditu Gitxaurdi udal kirol instalazioak.**

Horretaz gain, lehiaketa berria egin arte eta gaur egungo egoera ekonomikoa moldatzeko, Udalak instalazio horietarako urteko 350 abono hartuko ditu. Hilabetero instalazioak dituen abonatu kopurua zenbatuko da eta gaur egun dituen 1.034 abonatuetatik goiti egiten duen kopuruaren neurri berean jautsiko dira udalaren abonoak.

UPNren ustez, adjudikazio berria egin arte kontratua betetzea eta zerbitzua ematen segitzea eskatu beharko litzaioke Gesport enpresari eta kontratua etetea eskatzen badute, kontratua ez betetzeagatik dagozkion zigorrak ezartzea. 350 abono erosteari dagokionez, UPNri ez zaio instalazioak zabalik mantentzeko neurririk egokiena iruditzen, eta kaltegarria ere izaten ahal da, *«Udalak nola edo hala instalazioak mantenduko dituela ikusiz, abonatu kopurua jausteko arriskua baitago»*. Legezkoa ote den ere zalantzak agertu zituen UPNk, baina udal idazkariaren erranetan araudiari egokitzen zaio.

EAk bere aldetik, herrian gehien erabiltzen den instalazioaren funtzionamendua garantizatu nahi dela erantzun zuen, abonatuekin duen betebeharra delakoz.

### «Herritarren bizi-kalitatea hobetu da»

Iñigo Iturralderen ustez, Giltxaurdi Udal Kirol Instalazioarekin baztandarren bizi-kalitatea nabarmen hobetu da. Instalazio hau eraikitzea udalarentzat esfortzu ekonomiko handia izan zela onartu ondotik, *«errentagarritasun sozial handiena duen udal azpiegitura»* dela ere nabarmendu zuen. *«Hori bai, 8.000 bizilagunera ailegatzen ez garela kontuan hartuz, zaila da bideragarritasun ekonomiko nahikoa izateko haina erabiltzaile lortzea»*. EAren ustez, Udalaren betebeharra da kirol eta aisiaren praktika erraztea eta bultzatea. Horregatik, *«ahalik eta baztandar gehien sartzeko moduko prezio publikoekin segitu nahi dugu. Oso-osorik diru publikoarekin ordaindutako instalazio publikoak, ez luke inoiz klub pribatu batean bihurtu behar»*.

Begoña Sanzberrok, UPNren nahia ez dela igerilekua ixtea argitu zuen, *«baina igerilekua zabalik mantentzea bezain soziala da horrek udal kutxari ahalik eta kostu gutien sortzea eta hor ere EAk egon beharko luke»*.








BAZTAN

# Amaiurko seroraren etxean Landa Turismo Zentroa eginen da

## Zerbitzu turistikoak eskainiko ditu Rafael Etxebertz-ek

ttipi-ttapa

Amaiurko elizaren ondoan dagoen garai bateko Seroren etxeak Baztango Landa Turismo Zentroa eta erabilera aunitzeko lokala hartuko ditu bere baitan. Juan Mari Aleman Amaiurko alkateak eta Carlos Garaikoetxea Baztango kultur zinegotziak egindako eskariari erantzunez, Iruñeko Artzapezpikutzak 25 urterako utzi du etxea, proiektu hau gauzatu ahal izateko. Lanen aurrekontua 51.423 eurokoa izanen da eta Baztango Udalak 42.000 euro ordainduko ditu (horietatik 36.000 Cederna-Garalur erakundeak kudeatzen duen Leader+ ekimenetik) eta Amaiurko parrokiak 9.423 euro ordainduko ditu.

Behin lanak akitutakoan, berriki zaharberritutako Amaiurko errota kudeatzen duen Rafael Etxebertz-ek zerbitzu turistikoak eskainiko dizkie bisitariei. Bertzeak bertze, turismo informazio gunea, Santiago Bideko erromesendeko harrera zentroa, artisautza-denda, erakusketa-gela eta bertze egin nahi dira seroraren etxe zaharrean. Arteka enpresak idatzi du proiektua. Seroraren etxeak bi solairu ditu eta beheitikoan komunak eginen dira. Lehenbiziko solairuan, berriz, turismo zentroa eta bilera-gela eginen da.

Amaiurko errota berrituaren inaugurazioa uztailaren lehen aste hondarrean eginen bada ere, Turismo Zentroa irekitzeko hilabete batzuk gehiago joanen direla uste da.



UTZITAKO ARGAZKIA

### *Bai Euskarari ziurtagiria gero eta ugariago*

**Euskal Erakundeen Kontseiluak Bai Euskarari ziurtagiriak banatu zituen maiatzaren 20an euskararen konpromisoa hartu duten 58 saltoki, enpresa eta erakunderi. Horietatik, 24 ziurtagiridun berriak dira. Fernando Anbustegi Euskalgintzako ordezkariak lanean segitu behar dela aipatu zuen: *«Harro egon gaitezke egindako lanarekin, baina Baztanen euskararen presentzia handitzen jarraitzeko aurrerapausoak ematea ezinbertzekoa da»*. Virginia Aleman alkateak, proiektu honetan parte hartzen dutenei zorionak emateko aukera aprobetxatu zuen: *«Baztanen urrats eraginkor eta erabakigarriak ematen ari gara normalizazioa lortzeko»*. Ziurtagiridunen izenean, Baztandarren Biltzarra eragilearen ordezkariak, Jesus Baylonek, solas egin du: *«Bai Euskarari ziurtagiria gure enpresa, saltoki edo bertzelako entitateen atarietan jartzeak euskararekin hartutako erantzukizuna erakusten du»*.**

FLASH

### *Igogailua Arizkunenean*

Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean igogailua jarriko da. Balleko Udalak 77.140 euroko inbertsioa onartu du lan honetarako eta Orona enpresak jarriko du. Kooperatiba honen eskaintza izan zen bakarra, hasierako aurrekontua 46 xentimotan jautsita. Orai, bi hilabeteko epea izanen du lanak akitzeko.

### *Erratzuko herri eskola*

Erratzuko herri eskolako moldaketa lanak eginen ditu Arakan eraikuntza enpresak. Forja sanitarioa aldatzeko lanaren hasierako aurrekontua 68.599,31 eurokoa baldin bazen ere, lanak 66.602 euroan eginen ditu. Hori bai, uztailaren 1ean hasi beharko dira lanean, hurrengo ikasturtea hasteko lanak akitu beharko baitira. Dirulaguntzarik ez balego, Udalak gastua bere gain hartzeko prest dago.

### *Ahots kontzertua Iruritan*

Igande honetan, ekainaren 4an, Sexteto Vocal Buenos Aires taldeak meza criolla programa eskainiko du Iruritako parrokian, 11:00etan.









URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

# Zugarramurdiko elizako ezkil berrituak jartzeko neurriak hartzera etorri dira

## Bi herrietako laborariek San Isidro eguna ospatu zuten Alkerdiko kaperan

**Margari eta Koro**

Duela hilabete pare bat eraman zituzten Zugarramurdiko elizako hiru ezkilak moldatzera. Geroztik beldurra da nagusi herrian: batzuk bestetarako ailegatuko ote diren (besten hasiera ezkilek ematen baitute); bertze batzuk diote behin urtu ondotik ez direla gure ezkilak izanen; ezkorrenak diote Iturenera eraman dituztela joareak egiteko...

Aste honetan dorreko neurriak hartzera etorri direla da azkeneko notizia, ezkilak ia-ia ekartzeko prest direlako. Beraz, egon lasai!!!



Argazkia: KR

**Zuamurdiar eta Urdazubiarrek ez zuten laborarien saindua ahantzi, eta Alkerdiko kaperan elkartu ziren San Isidro ospatzeko. Argazkiak erakusten duenez, emaztekiak ere animatu ziren besta honetara, eta gainera ez ote diren "kukurrukuka" ari: berak zutik eta gizonezkoak belauniko!!!!**

### *Lezeei buruzko informazioa*

Zugarramurdiko leze eta sorginak franko ezagunak direla ez dago dudarik, bainan Frantzia aldetik heldu direnek ez dituzte hainbertze ezagutzen. Hoiendako zuzenduak kartel berriak jarri dira Gaineko-bentan eta Dantxarinean.

### *Antzerkia Ospitalean*

"Udaberriko Bira" egitarauaren barnean Zugarramurdiko Ospitalean antzerkia ikusteko aukera izan zen gan den maiatzaren 20ean. Emankizunak "Ateak edonon sortzen direnean" zuen izena; eta erran digutenez, hain xuxen antzerkia ikusi gabe "atean" gelditu omen ziren batzuk berandu ailegatu zirelako.












SENPERE

# Ikastolak zikintzen entseiatu da Prefetura aintziran gertatu den kutsadurarengatik

## Oxtikenekoak elkartearen 10garren urtebetetzea erearoaren 3an ospatuko da

**Franck DOLOSOR**

Paueko prefetura Herri Urratsen izen ona zikintzen entseiatu da maiatzaren 16an herriko aintziran gertatu zen kutsadurarengatik. Ikastolen aldeko bestan baliatzen diren zerbitzu mugikorren ur zikinak euriaren hodirat isuria izan zen nahigabe. Erandioko lantegi bateko enplegatua hodiz nahasi zen, hondakinak ur zikinen hodirat bota behar baitzituen.

23 urtez, ez da sekulan holakorik gertatu baina nahasketa hunek ondorio latzak izan ditu. Ur zikinak aintziran agertu dira euriaren hodiak lakuarekin lotuak direlakotz. Aintzirako sartzean den aparkaleku ondoan ere ur zikinak agertu ziren isurketaren tokia sartzearekin ere lotua baita. Berehala ur zikinak biltzen entseiatu dira baina 500 arrain inguru hilik agertu dira, iduriz ur zikinean ez dute oxigeno askirik izan hatsa hartzeko.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

***Oxtikenekoak elkartearen 10. urteurrena larunbatean***

**Oxtikenea etxea duela hamar urte erosi zuen herritar talde batek eta geroztik ekitaldi andana egin da osoki xahar berritua izan den etxe hortan. Hamar urtez, euskal kultura zabaltzea izan da elkarte eta etxe horren ardatz nagusia, hala nola olerki egunak, kantu xaharren egunak (argazkian), hitzaldiak, herriko besten animazioak eta aterpea eskaintzea herriko edozein elkarteri bilkurak edo animazioak egiteko. Hamargarren urtebetetzea ospatzeko, besta eguna prestatu dute larunbat honetan, erearoaren 3an. Eguerdian bazkaria izanen da eta arratsaldean bi kontzertu izanen dira Tapia eta Leturia, eta Ekintza taldeekin.**

Maiatzaren 18an, aintzirako ura garbia zen berriz ere. Prefeturak egin zituen ikerketek erakutsi dute ez zela neholako irriskurik ura hartzeko eta edateko Urdazuri ibaian. Lakuan aldiz, mainatzea, ur kirolak egitea edo arrantzatzea debekatu dute badaezpada.

Seaska Ipar Euskal Herriko ikastolen federazioa kexu da prefetura kutsadura kimikoaz mintzatu baita berehala ikerketen emaitzak jakin gabe. Frantziako ordezkariak bi isurketez mintzatu dira isurketa bakarra izan delarik egiazki. Zerbitzu mugikorrak ezarri zituen Bizkaiko lantegiak erran du zerbitzuetan baliatzen den produktua ez dela kimikoa, organikoa baizik.

Amerikako Estatu Batuetatik ekartzen duten likido urdinak ez du neholako irriskurik naturarentzat. Gainerat, bizkaitarrek diote isurketa bakarra egin zutela nahi gabe eta ez bi, prefeturak sinetsarazi duen bezala. Herriko Etxeak eta arrantzale talde batek salaketa presentatu dute lantegi horren kontra. Seaskak argi utzi nahi du lantegiak bere ardurak hartu izan ez balitu ikastolen federazioak berak ordainduko zituela aintzirako garbiketa gastuak...

Kutsadurak aipamen zabala izan du baina ez da ahantzi behar Herri Urrats besta usaian bezain ongi iragan zela. Eguzkia eta beroa lagun milaka euskaltzale eta bestazale elkartu ziren. Aurtengo irabaziekin Ziburu eta Larzabaleko ikastolak lagunduko dira. 300.000 euro inguru biltzen dira Herri Urratsetan.






## SARA

# Departamendua sortzeko erreferendumaren aldeko sinadurak ekainaren 10ean bilduko dira

Herriko Etxean 9etatik 13etara



UTZITAKO ARGAZKIA

**Emakumezkoen Urtxintxak eskubabaloi talde seniorra erdifinalean galdu zuen Kanboren kontra, baina halere sasoin ederra egin du. Gibeletik, hainbat neska gazte ari dira eskubaloian.**

**Laetitia eta Sandrine**

Euskal eta Biarnes departamentuak sortzeari buruzko erreferenduma antolatu ahal izateko 46.000 sinadura bildu behar dira. Demokraziaren oinarria den kontsultazio hori egia bihurtzeko, herritar guzien inplikazioa beharrezkoa da. Erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko, Herriko Etxea idekia izanen da ekainaren 10ean, goizeko 9etatik arratsaldeko 13ak arte. Demokrazia eta kontsultazioaren aldekoa bazara, ez utzi bertzeen esku, 46.000 kopuru handia da eta denen sinadurak inportantzia handia izanen du.

### Herri Urrats bezpera

Maiatzaren 13an urte guziz bezala Herri Urrats bezperako gau pasa, Gaztetxeak antolatu zuen. Denetan 900 bat pertsona hurbildu dira polikiroldegian, dena giro onean pasatu da. Arrats hortan 8ak aldean Sarako plazan Ibarrako dantza taldeak ikusgarri ederra eskaini zuen, jende multzo bat hurbildu zen dantzen ikustera.

### Beti Gazte

Beti Gazte erretretatu elkarteak, bazkari a antolatu zuen maiatzaren 18an ostegunarekin Armua jatetxean, Urdazubin. Egun goxo bat pasatzeko aukera izan zen denen artean.

### Aldaketa

Eritasunari doakion asurantza kutxa (CPAM), ez da gehiago Sarara etorriko, orain Senperera joan beharko da, posta bulegoan da asteartero idekia izanen da goizeko 9:30etik 11ak arte.

### Esku baloia

Maiatzaren 6an larunbatarekin, Sarako Urtxintxako senior taldeak erdi finaleko lehen partida jokatu du Saran, Kanboren aurka, Sarak galdu du 15-20, bainan bigarren aukera izan zuten, maiatzaren 13an, Kanbon aritu direlakotz, bainan galdu dute 14-11. Hala ere zoriontzen ahal dira, sasaoin ederra egin dutelakotz. Zorionak!!!

xaretik
www.xaretik.com • Tlf: 948 635 386

CAFÉ DE LA MAIRIE
SARA

ARMUA
Jatetxea
URDAZUBI

MENDI LANAK
Zerrakurak • Pikete salmenta
Landaketa eta garbiketa
ETXARTE - IGANTZI
630 943 589 - 948 637 567

Landibar
ZENTRO KOMERTZIALA
EGUNERO IREKIA

300m² perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
· Euskal Herriko preziorik hoberenak
Tel: (0034) 948 599 400 · URDAZUBI



# EZKONTZAK

**Aaron Aparicio Viguera** eta **Maria Carmen Azpiroz Sosa**, Leitzakoak, maiatzaren 9an.

**Jose Miguel Kanflanka Ezkurra** eta **Paula Arburua Lusarreta**, Leitzakoak, maiatzaren 20an.

**Jorge Jose Marañon Martinez** eta **Juana Maria Telletxea Altzate**, Berakoak, maiatzaren 11n.

**Jose Arriada Organbide** eta **Guadalupe Wendi Gutierrez Rodriguez**, Elizondokoa eta Mexikokoa, maiatzaren 12an.

**Juan Angel Apezetxe Ariztia** eta **Juana Maria Igoa Irigoien**, Irurita eta Zigakoa, maiatzaren 13an.

**Pedro Maria Larraintzar Baraibar** eta **Edurne Gortari Sein**, Arraitz eta Oronoz-Mugairikoa, maiatzaren 13an.



# SORTZEAK

**Egoitz Elizegi Loiarte**, Goizuetakoa, maiatzaren 18an.

**Ekiñe Salgado Solo**, Lesakakoa, maiatzaren 14an.

**Enara Azurmendi Barriola**, Leitzakoa, maiatzaren 6an.

**Lide Salgado Iguaran**, Berakoa, maiatzaren 7an.

**Zaira Rico Igoa**, Berakoa, maiatzaren 9an.

**Oihan Apeztegia Martinez**, Sunbillakoa, maiatzaren 23an.

**Beñat Baleztena Otxotorena**, Leitzakoa, maiatzaren 24an.

**Kepa Lekuona Olaizola**, Zugarramurdikoa, maiatzaren 11n.

**Garikoitz Agirre Soto**, Zugarramurdikoa, maiatzaren 13an.

**Oihana Berasategi**, Sarakoa, maiatzaren 15ean.

**Intza Mujika Klaber**, Aranokoa, martxoaren 19an.

**Irune Galparsoro Alerbe**, Aranokoa, apirilaren 25ean.

**Egoi Calvo Rodriguez**, Elizondokoa, maiatzaren 10ean.

**Berta Mugiro Eseberri**, Elizondokoa, maiatzaren 13an.

**Olaia Arraztoa Carvajo**, Elizondokoa, maiatzaren 18an.

**Bihotz Alustiza Iparragirre**, Arantzakoa, maiatzaren 12an.

**Uxue Ilarregi Ariztegi**, Oizkoa, maiatzaren 19an.



# HERIOTZAK

**Esteban Alberdi Mendiberri**, Arizkungoa, maiatzaren 12an, 58 urte.

**Feliciana Zabaleta Zestau**, Leitzakoa, maiatzaren 12an, 88 urte.

**Juan Jauregi Lasa**, Ezkurrakoa, maiatzaren 14an, 83 urte.

**Julia Del Rio Barberena**, Lesakakoa, maiatzaren 14an, 96 urte.

**Martina Pikabea Irigoien**, Lesakakoa, maiatzaren 15ean, 89 urte.

**Bautista Ariztia Etxenike**, Elizondokoa, maiatzaren 16an, 83 urte.

**Jose Angel Tomasena Elizalde**, Etxalarkoa, maiatzaren 18an, 83 urte.

**Gilberte Bessadet**, Sarakoa, maiatzaren 20an, 96 urte.

**Juana Indart Taborga**, Arizkungoa, apirilaren 30ean, 89 urte.

**Paula Askunze Etxart**, Azpilkuetakoa, maiatzaren 1ean, 84 urte.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

PILOTA



Argazkia: ONDIKOL

Sari banaketan, Xabier Altzugarai eta Iñaki Otxandorena pilotari profesionalak izan ziren.

# Errekaren IV. eskuz binakako txapelketaren finalak jokatu ziren maiatzaren 13an

## Elite mailako txapelketan Belloso eta Oteiza izan dira txapeldun

Aitor AROTZENA

Maiatzaren 13an jokatu ziren Doneztebeko pilotalekuan Erreka elkarteak laugarren aldiz antolatutako eskuz binakako txapelketaren finalak. Goiz eta arratsaldez jokatu ziren partidak eta giro ederra eta partida bikainak ikusi ziren. Binakako txapelketaren finalak izan arren, buruz buruko bi partidekin hasi zen jaialdia goizeko 10etan. Aurrebenjamin mailan, Errekako Eloy Garciak 18 eta 11 irabazi zion Errekako Daniel Morani. Bigarren mailako benjamin mailan, Errekako Mikel Retegik 18 eta 15 irabazi zion Errekako Julen Juankorenari.

Eskuz binakako finaletan sarturik, aurrebenjamin mailan, Errekako Oier Berasategik eta Mikel Lanak 18 eta 14 irabazi zieten Errekako Iñaki Maylin eta Julen Indari.

Bigarren mailako benjamin mailan, Errekako Javier Saldias eta Julen Juankorenak 18 eta 16 irabazi zieten Errekako Imanol de Rueda eta Mikel Retegiri.

Benjami mailan, Zugarraldeko Sarasa eta Espinalek 18 eta 7 irabazi zieten Leitzako Aurrerako Sagastibeltza eta Sagastibeltzari.

Alebin mailan ere, Zugarralde eta Aurrerako pilotarien arteko finala jokatu zen eta hemen ere emaitza berbera errepikatu zen. Zugarraldeko Agirre eta Lasak 18 eta 7 irabazi zieten Aurrerako Gil eta Olanori.

Infantil mailako partidan, Barañaingo Lagunak taldeko Iraizoz eta Taintak 18 eta 6 irabazi zieten Larraungo Igartua eta Barberenari. Partida honekin akautu zen goizeko saioa.

Ondotik, 35 lagun bildu ziren Doneztebeko Santamaria jatetxean bazkaltzera. Tartean ziren Miguel Pozueta, Nafarroako Pilota Federazioko presidentea, Pedro Uriarte Bizkaiako Federaziokoa, Carlos Garcia eta Ricardo Altube, mallabiako txapelketako antolatzaileak; Irañeta eta Razkin, Huarte-Arakigo txapelketako antolatzaileak; Fermin Gimenez, Logroñoko El Cortijo txapelketako antolatzailea, Jesus Mari Juanena Doneztebeko zinegotzia, Juan Telletxea Errekako presidentea eta Errekako pilota sekzioko hainbat arduradun.

Arratsaldean, kadete, jubenil eta elite mailako finalak jokatu ziren.

Kadete mailan, Igantziko Biltokiko Imanol Goienetxek eta Sutegiko Kortabarriak 22 eta 7 irabazi zieten Latasako Valencia eta Jaunarenari. Goienetxe igantziarrak kolpe ederra erakutsi zuen eta Kortabarria bikain ibili zen gibelean.

Jubenil mailako finalean, Pilotajauko taldeko Iturrioz eta Bergerak 22 eta 14 irabazi zieten Errekako Eskuderori eta Aurrera-Saiaz taldeko Galarragari.

### Belloso eta Oteiza elite mailan

Azkenik, txapelketako partida nagusia jokatu zen, senior elite mailako finala. Bertan, Tolosako Aurrera Saiaz elkarteko lau pilotari aritu ziren aurrez aurre: Belloso eta Oteizak 22 eta 10 irabazi zieten Olaetxea eta Huarteri. Jokaldi bikainak ikusi ziren. Aitzinean batez ere, erritmo ikaragarria jarri zuten bi aurrelariek. Bellosok abiadura handia eman zion pilotari eta Oteizak laguntza ederra eman zion, dena ongi egin baitzuen: jo, moztu, bi esku bikainak... Huartek nahiko egin zuen pilotari eusten. Azkenean, garaipena Belloso eta Oteizarentzat izan zen, baina lau pilotariek ikusleen txalo zaparrada jaso zuten.

Ondotik egin zen sari banaketan, eguerdian bazkaltzera bildutako agintariekin batera, Asegarceko Iñaki Otxandorena eta Garfeko Xabier Altzugarai pilotari profesionalak izan ziren. Elite mailako txapeldunek 600 euroko saria jaso zuten eta txapeldunordeek 400. Erreka elkarteak eskainitako berenduan 450 lagun bildu ziren, giro ederrean.

DUATLOIA

# Nafarroako Errepideko Duatloia irabazi du lehen aldiz Mitxel Aginagak

## Espainiako Green Cup txapelketan laugarren izan da



UTZIKO ARGAZKIA

**Kirolari narbartearra denboraldi bikaina osatzen ari da errepidean nahiz Green Cup modalitatean.**

A.A.

Bodegas Borsao taldeko Mitxel Aginaga kirolari narbartearrak maiatzaren 13an Isabako laugarren Duatloia eta honenbertzez, Nafarroako txapelketa irabazi zuen. Guzira, ehun atleta atera ziren Isaban kategoria ezberdinetan. Mitxel Aginagak hainbat aldiz irabazi du Nafarroako mendi duatloi txapelketa, baina lehenbiziko aldia da errepidekoa irabazten duela eta *«arantza kendu duela»* adierazi du.

Hasieran, 6,6 km egin behar izan zituzten lasterka eta hemen osatu zen bortz laguneko taldea. Bertan zeuden faborito nagusiak Mitxel Aginaga, Pablo Arrastia edo Peio Lopez, erratе baterako. Elkarrekin ailegatu ziren lehen aldaketara eta bizikletan egin beharreko 24 kilometroetan lortu zuen abantaila Aginagak. Azkeneko 3,3 km Isabako harrizko karriketan egin behar izan zituzten kirolariek, baina Aginagak ongi eutsi zion bere aldeari. Azkenean, ordubete, 10 minutu eta 34 segundu behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Pablo Arrastia izan zen bigarren, minutu eta bi segundura eta Valle de Egues taldeko Iñaki Marsalek osatu zuten podiuma, narbartearrak baino minutu eta 34 segundu gehiago erabilita. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Peio Lopez laugarren izan zen eta David San martin independientea bosgarren.

**ESPAINIAKO GREEN CUP TXAPELKETAN LAUGARREN**

Isabako probaren aitzinetik, maiatzaren 7an, Ciudad Realgo Puertollano hirian egin zen Espainiako Green Cup txapelketan parte hartu zuen Mitxel Aginagak. Txapelketa honetan, Green Cup Martiko taldearen izenean aritzen da narbartearra eta bosgarren postua eskuratu zuen proban eta laugarrena Espainiako txapelketan, bere aitzinetik sartu zen kirolaria portugaldarra baitzen. Vilanova taldeko Agusti Roc Amador izan zen irabazle, Green-Cup Martiko taldeko Santiago Arnes bigarren eta Vilanoba taldeko Victor del Corral hirugarren.

Taldeka, Green Cup Martiko izan zen irabazle.

SOKATIRA

# Nafarroako 4x4 txapelketako azken tiraldiak larunbatean Burlatan

## Emakumeak eta gizonezkoak ari dira lehen aldiz



ARTXIBOKOA

**Gure Txokoako nesken laukotea ari da aurten.**

A.A.

Aurten, lehen aldiz Nafarroan, goma gaineko 4x4 sokatira txapelketa antolatu du Herri Kirol Federazioak.

Gizonezkoen txapelketa 320 kiloko kategorian jokatzen ari da hamar talderekin, tartean eskualdeko bortz. A multzoan, Amaiurko EHNE Nafarroa, Berriozar, Txantrea, Burlata eta Berako Gure Txokoa daude. B multzoan, Amaiur, Berriozar Kirol Elkartea, Errotaberri, Lesakako Beti Gazte eta CAN Amaiur. Lehen bi jardunaldiak jokatu dira, maiatzaren 20an Arbizun eta 28an Urdazubin. Puntuak batu ondotik, ekainaren 3an Burlatan eginen den finalerako sei talde sailkatuko dira, multzo bakoitzeko lehen hiru sailkatuak. Bertze taldeek, zazpigarrenetik hamargarren postura bitartekoak erabakiko dituzte azken jardunaldi horretan, 18:00etatik aitzinera.

Emakumezkoen txapelketa 260 kilotan jokatzen ari dira hiru talde: Sakana, Beriain eta Berako Gure Txokoa. Hiru jardunaldi jokatuko dira liga sisteman eta tiraldiak gizonezkoen egun eta leku beretan egiten ari dira.

# AGENDA egunez egun

## MENDI ATERALDIAK

### SARA

**Ekainaren 4an** Sarako XI. Itzulia antolatu du Axuria mendi taldeak.

### IGANTZI

**Ekainaren 3an** Igantzi-Goizueta ibilaldia prestatu dute Igantziko Biltokik eta Goizuetako Umore Onak.

### BAZTAN

**Ekainaren 4an** Irurita-Iruñea ibilaldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.
**Ekainaren 11n** Aiako Harrietara ateraldia antolatu dute Baztango Mendigoizaleek.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

**Maiatzaren 23tik ekainaren 8ra** «Rikardo» margo erakusketa zabalik Arizkunenean.
**Ekainaren 9tik 29ra** Kepa Arizmendiren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

### LESAKA

**Ekainaren 5etik 10era** «Sagarraren mundua» erakusketa udaletxeko pleno-aretoan 18:00etatik 21:00etara.
**Ekainaren 16ra arte** Irain eskolako ikasleek 2004-05 eta 2005-06 ikasturteetan birziklatze tailerretan egindako lanak ikusgai eskolan.

## ZINEMA

### BERA

**Ekainaren 9an** «Agua con sal» filmea eskainiko da Kultur Etxean 21:00etan, Bera Mugarik Gabe egitarauaren barrenean.

## SOLASALDIAK

### LESAKA

**Ekainaren 9an** «Sagardoa eta sagar mota ezberdinak» solasaldia 19:30etan Pleno Aretoan.



## TELEBISTAKO TXOKOA



ORTZIRALEKO ERREPORTAIAN IKUSGAI

# Baztango aziendak sartu dira Belateko herrilurretan

Baztanek 377 kilometro koadro ditu eta, honenbertzez, Nafarroako udalerririk handiena da lurrei dagokienez. Lurralde horren %84a herrilurra da. Erdiz, Belate eta Lizartzu herrilur itxiak dira, belagi eta bazka ederrekin, eta uda partean, abeltzainek bertan sartzen dituzte beraien behi-aziendak. Azienden sartzea nola egiten den ikusiko dugu ortziral arratseko erreportaian. Gehienek kamioietan eramaten dituzte beraien aziendak, baina badira oinez ere joaten direnak, hurbilen dauden Basaburuko herrietatik, batez ere. Adituek diotenez, Erdizko bazka omen da onena. Baztanek daukan herrilurrik zabalena Erdizkoa da, gainera. Belatekoa ttikixeagoa baldin bada ere, hurbilago dago eta abeltzainak aziendak nola dauden ikustera gehiagotan hurbiltzen dira. Abeltzain hauen iritzia ere adituko dugu erreportaian.

Goizean sua egiten da. Aziendak markartzeko burnia berotzen da: VB dio burniak, Valle de Baztan eta paraje horretan dauden behi azienda guziek horixe eramanen dute ezker mazelean. Denboraldia irailaren 29ra arte luzatuko da, San Miguel eguna arte. Orduan, behi aziendek belagia utzi eta zaldi eta ardi aziendei lekua utzi beharko diete.

## DISKAK




*Sugan*

**SUGAN**

*ELKAR, 2006*

Gaztaroa dugu, dudarik gabe, musikaren garaia, bata bertzearentzat eginak direlarik. Adin horretan, emozio kontrolaezinak, amets tentagarriak eta pasio sutsuenak, esperientzia ezaren hauskortasunarekin eta zalantzarekin nahasten dira, eta musikak, orduan, barneko anabasa ordenatzen hala nola sentimenduak eta sentsazioak galbahetzen laguntzen du, bihotzean ulergarri gerta daitezen. Beasainen sortutako Sugan talde gaztearentzat ere, musikarena da eguneroko espresiobiderik naturalena; eta musikaren inguruan antolatu du bere mundu berezia, pop aireez eta era progresiboan garatzen diren konposaketez beztiturik, non nota bakoitzak, instant bakoitzak, sekulako garrantzia daukan. Arrasto horren barrenean hazten dira hitzak eta mezuak, laztangarri bezain oldartsuak....

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(Maiatzaren 12tik 19ra bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 38,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,165 € kiloa. (+0,015)

**Zerramak:**
0,450 € Kg/bizirik. (-0,020)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3, 80 (=)
**1.koa** 3,58 (=)
**2.koa** 3,39 (=)
**Umuxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,92 (=)
**1.koa** 3,70 (=)
**2.koa** 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen diten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
umuxak 220,00 (=)
idixkoak 288,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
umuxak 180,00 (=)
idixkoak 225,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberrak: 2,95/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,60 /6,50
8-10 kilokoak: 4,50 /5,20

## JAKIN BEHARREKOAK

# Apatia edo geldotasun existentziala

Gure biziaren eta zoriontasunaren arduradun bakarrak gu geu garela jakitea da garrantzitsuena

«Ez dut deustarako gogorik», «Egunero berdin», «Ez diot zentzurik hartzen nere biziari»... Ezagun egiten zaizkizu esaldi hauek? Egunero sentitzen duzunaren islada bihurtzen baldin badira, apatiko zaudela erran nahi du, zerbait ongi ez doanaren seinale dira. Denborarekin pasatzen ahal da, baina depresio baten seinale ere izaten ahal da. Apatia hau, hutsune hau denok sufritzen ahal dugu, edozein adinetan.



**Gure bizian egitan zer nahi dugun jakin behar dugu, bertzeek gu zer izatea nahiko luketeen kontuan hartu gabe.**

**Apatiaren pizgarriak**

• Galera bat (maite duzuen norbait, lanpostua, bikotea...).

• Errutina sobera duen bizimodua.

• Estresa eta nekea sortzen duen lan aldia.

• Maitasun harremanik ez izan eta bakarrik sentitzea.

• Gisa honetako pentsamenduak izan: «Ez dakit zer nahi dudan», «Ez diot zentzurik aurkitzen nere bizimoduari»...

• Garen bezalakoak onartuak ez izateko beldurrez itxurak egitea.

• Gaur egun daukagun gehiegizko konpetibitatea.

**Zer egiten ahal dugu?**

Apatiaren aitzinean, lehenbiziko gauza zer gertatzen zaigun galdetzea da. Gure barnera begiratu behar dugu, norbera aditzen ikasi, baita juzkurik egin gabe bertzeak aditzen ere ikasi. Gure bizian egitan zer nahi dugun jakin behar dugu, bertzeek gu zer izatea nahiko luketeen kontuan hartu gabe eta «posible den ni onena» bultzatu, onartu den eta norbera maite duen «ni» bat.

Modu berean, garrantzitsua da egunero erronka txiki berriak jartzea, altxatu eta lortzera borrokatzeko motibatzen gaituztenak. Erronka hauek errealistak izan behar dute, lortzeko modukoak baina ez sobera errazak, bertzenaz, ez baitugu helmugara ailegatzeko motibaziorik lortuko.

Eta garrantzitsuena, gure biziaren eta zoriontasunaren arduradun bakarrak gu geu garela jakin.

Rakel AMIGO

## LIBURUAK




*Arotzaren eskuak*

**Alberto LADRON ARANA**

Alberto Ladron Arana (Iruñea, 1968) azken urteetako obra narratibo sendo eta oparoenetako baten egile gisa plazaratu da. Horren erakusgarri dira orain arteko bere eleberriak: «Itzalaren baitan», «Xake Mate» eta «Eguzki Beltzaren sekretua», eta hori berrestera dator oraintxe plazaratu duen lana: «Arotzaren eskuak». Ia ezagutzen ez zuen aitonak herentzian mendian galdutako etxe bat utzio diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat eginen du, aitonaren iraganaz galdetzera behartuko duena. Misterioaren sokak Frantziako Erresistentziaraino eramanen du, Bigarren Mundu Gerraren garaian; berrogeitaka urte beranduago Europako hainbat lekutan gertatutako hilketa sorta izugarri bat ere harrapatzen du, eta bere burua arriskuan egon litekeela sentituko du azkenik.

# AGENDA egunez egun

### OSPAKIZUNAK

**SENPERE**

**Ekainaren 3an**
Oxtikenekoak elkartearen 10. urteurreneko ospakizuna. Eguerdian bazkari alaitua, arratsaldean kontzertua Tapia ta Leturia taldearekin eta arratsean kontzertua Ekintza taldearekin.

**LESAKA**

**Ekainaren 10ean**
Nafarroako Sagardoaren Eguna ospatuko da. Xehetasunak 10. orrian.

### FERIAK

**ETXALAR**

**Ekainaren 4an** XIV. Gasna eta Artisau Feria antolatu du Altxata elkarteak. Goizean haurrendako sormen tailerra. 10:30etan artisauen erakusketa. 12:30etan herriko trikitilariak. 13:30etan gasna lehiaketako sari banaketa. 14:00etan herri bazkaria. 18:00etan herriko dantzarien saioa.

**ELIZONDO**

**Ekainaren 10ean** Baztango artisau produktuen feria Merkatu Plazan 10:00etatik 14:00etara.

### KONTZERTUAK

**DONEZTEBE**

**Ekainaren 3an** Doneztebeko Mendi, Hendaiako Entzun eta Ereñozuko Mendi abesbatzek kontzertua eskainiko dute elizan 20:30etan. Ordubete lehenago herriko karriketan trikitixa eta pandero soinuak hedatuko dira, Mendi Abesbatzaren 10. urteurrena ospatzeko.

**LEKAROZ**

**Ekainaren 2an** Lekaroz, Bera, Doneztebe, Leitza eta Altsasuko institutuetako ikasleek kontzertua eskainiko dute 17:30etan institutuko pilotalekuan.

Lan bila zabiltza?

LAN ESKAINTZA
ADMINISTRARI LAGUN.
- Unibertsitateak
- Udaletxeak
Soldata: 1.500 €
SUKALDARIAK
SUKALDE LAGUNTZAILEAK
- Naf. Diputazioa
- Asteburuak libre
Soldata: 1.600 €

LAN ESKAINTZA
GIDARIAK
TXOFERRAK
- Udaletxeak
- Naf. Diputazioa
Soldata: 1.800 €
HARRERAGILEAK
TELEFONISTAK
- Udaletxeak
- Naf. Diputazioa
Soldata: 1.100 €

Presta zaitez. Informazioa dohain.
948 199 596

MALERREKAKO MANKOMUNITATEA

**EUSKARA TEKNIKARI LANPOSTUA, BITARTEKO KONTRATUAREKIN, BETETZEKO DEIALDIA**

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateko Lehendakariak, ordezko euskara teknikari lanpostua betetzeko deialdia, bitarteko kontratuarekin eta oposizio-lehiaketa bidez, onartu da.

Iragarkia argitara ematen da interesa duen orok Mankomunitateko bulegoan (Doneztebeko Merkatarien karrikako 17. zenbakian) 9:00etatik 14:00etara jaso dezan deialdiaren oinarrien kopia.

Eskabideak aurkezteko epea 2006ko ekainaren 12an 14:00etan, bukatuko da.

Doneztebe, 2006ko maiatzaren 24an
Mankomunitate burua,
Miguel Angel Petrirena Azpiazu

TALLERES SANTESTEBAN
T. 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-10 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR
ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO...
ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

MENDAUR MOTOR
© 948 450333 • DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:
Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Peugeot 306, Galloper 3-5 ate, Opel Frontera Sport, Suzuki Ignis 4x4 eta Citroen Evasion 2.0 HDI.
SUZUKIAK ETA VITARAK, AUKERAN

kamarera behar da. ☎ 948 635187.

**IRUN.** Neska bat behar da jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko. ☎ 943 633557.

**ETXALAR.** Etxalarko Benta hotelean, logelak garbitzeko langilea behar da. ☎ 948 635000.

**BERA.** Udal igerilekuko ostatua errentan ematen da, uda denboraldian. ☎ 948 630215.

**Zurgindegirako langilea** behar da. Esperientziarekin. ☎ 948 451906.

**Elbarri fisikoak.** Nafarroako Gobernuan abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukaldariak, sukalde laguntzailea.** Abudo sartzeko Nafarroako Gobernuan. Asteburuak libre. 1600 €/hilabetea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Harreragileak, telefonistak.** Lanpostu libreak udaletxetan eta Nafarroako Gobernuan. 1.100 €/hilabetean. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Haur zaindariak, hezitzaileak.** Haurtzaindegietan abudo sartzeko. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Mantenimendua.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Udaletxetarako lanpostu libreak. 1.600 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

**Laborategia.** Nafarroako Gobernurako lanpostu libreak: teknikoak, laguntzaile sanitarioak, kimikoak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Gidariak, txoferrak.** Abudo sartzeko udaletxetan, Nafarroako Gobernuan. 1800 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

**Administrari laguntzaileak.** Abudo sartzeko unibertsitatetan, udaletxetan. 1.500 €/hilabetean. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Peoiak.** Abudo sartzeko obretan, lorategietan. Ordutegia: 8etatik 15etara. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak.** Udaletxe eta Nafarroako Gobernurako lanpostu libreak. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Nissan 2.0** hiru plazako furgoneta salgai. 113.000 km. NA-AD matrikuladuna. ☎ 948 631137.

**Quad Yamaha Banshee** salgai, 350 cc, 2002koa, egoera onean. Gutti ibilia. Ekipamendu doblea. ☎ 687 052867 (19:00etatik aurrera).

**Citroen ZX** autoa salgai, NA-AM matrikuladuna. Arras egoera onean. ☎ 680 343337.

**Mitsubishi L200** bi plazako pick-up autoa salgai, 2004. urtekoa, 22.000 km. ☎ 616 756359.

**Ford Fiesta** 1.8D autoa salgai, 5659 CHN matrikuladuna, egoera onean. ☎ 667 056876.

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

**Pottoka** arrazako zaldia salgai Beran. 6 urtekoa. ☎ 670 489337 (Joxe, 8:00etatik 20:00etara).

**Bi poni** (zaldi) salgai. ☎ 678 860244.

## DENETARIK
### 701 Galdu-aurkituak

**Bizikleta bat** desagertu da Beran. Mountain-bike estilokoa da, xuri eta urdin kolorekoa eta «Merida» letrak marraztuak ditu. ☎ 948 630629.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

**Etxeko pikarri** edo eskinharri zaharrak erosiko nituzke, harri gorriak. ☎ 650 543577.

**John Deere enpakadora** salgai, oso egoera onean. Nahi izanez gero, erremolkea ere. 2.100 euro. ☎ 669 260514.



Bidali
ttipi-ttapa
herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei
© (+34) 948 635458

Lasao
egurrezko altzaria



EUSKAL HERRIAN ESTIMATZEN DEN ALTZARIA

www.lasao.com

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) Tel. 943 15 11 82
e-posta: informacion@lasao.com


Lur
diskoteka
www.lurelizondo.com
ekainak 3 larunbata
Kasketuek
ufestuek + kaskezur
8€ 23:30
ekainak 10 larunbata
DISKOTEKA
8€ 01:00
2:30ak ARTE
"BAILES LATINOS"
2x1
2:30ak arte
ekainak 17 larunbata
10€ 23:30
Gualtzo
+ MARIACHI DIEGO QUEVEDO
Milesker!!
Milesker urte osoan etorri zareten guztioi.
Eta lagundu gaituzuenoi:
SAIOA, INTZA, ILARGI, TXOKOTO,
LABAYEN, SOBRINO, AMEZTI,
KORTARIXAR, ANTXITONEA,
ELBETEKO POSADA...
Elizondo (Nafarroa)